

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2019-10-18 OSTIRALA / 703. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



Zientzia dibulgaziorako bi hitzordu: Lizarragan gaur eta Olatzagutian ostegunean / 6-7

Urtea despeditu aurretik hasiko dira Irañetako ur biltegi berriko lanak; eskaera historikoa / 9


Joseba Ezkurdiak sentsazio onak ditu baina Unai Laso oso arerio arriskutsua dela uste du / 15



Mendigoizaleak taldeak antolatuta ferietako Argazki Rallyaren 34. edizioa izanen da igandean / 21

Onddo lasterketa bihar: oinezkoak 10:30ean, korrikalariak 11:00etan eta haurrak 12:00etan / 18

Angel Perez Miguel idazle altsasuarraren lehenengo eleberria aurkeztuko dute gaur, 19:00etan, lortian / 23



Atsasuko Feriak

/ 10-11



**HEMEN DA!
SAKANAKO GIDA 2020**

Iragarri nahi izanez gero edo
datuak berri nahi izanez gero
jarri harremanetan publi@guaixe.eus
948 564 275

ZURE NEGOZIORAKO LEIHOA





Aritz Ganboa de Migel proiektuaren babesleekin batera. UTZITAKOIA

Ondarearen alde lasterkan

Hilaren 26an eta 27an Arruazu eta Izaba korrika lotuko ditu Aritz Ganboa de Migelek. Bestela esanda, Artzaintzari eta haren inguruko ondareari balioa aitortzeko ekimena da arbazuarrarena. Erronka hori "Bideak" izenburuko dokumentalean jasoko da.

Eneida C. / Alfredo A. ARRUAZU

Ardiak erditzeko prestatzen ari direla, entrenamenduak eta lana partekatzen ari da Aritz Ganboa de Migel. Arruazu eta Izaba lasterka lotzeko erronka jarri dio bere buruari. Bi gazten jatorri izendapenak lotzeaz aparte, erronkak badu pertsonaletik: amaren familia izabarra da, aitarena arbazuarra. Baina, aldi berean, erronka kolektiboa ere bada: artzaintza eta hari lotutako giza-, ekologia-, kultura-, ingurumen-, paisaia-, ekonomia-, gastronomia- edota historia-ondarearen balioa

aitortu nahi du. Eta gu guztiok partaide egin nahi gaitu.

Zergatik aurkezpena Geltokin?

Gizarte-ekonomiaren eta zirkulu-ekonomiaren irizpideetan oinarrituta lantzen ari den proiektu bat da. Hainbat erakunderen elkarlana da. Horri lotuta ekin-tza ugari egiten dira. Gainera, esan beharra dago, Geltoki, Iruñeko autobus geltoki zaharra, izan dela Mendialdea edo herri guneak hiriarekin topatzeko toki. Geltokiaren bitartez iristen ziren elikagaiak hirira. Hiritarrak herrietara etortzen zitzaizkigun

geltokitik. Eta herrietakoek bidea egiten genuen geltokira, hirira joateko. Iruditzen zitzaidan landa eta hiri eremuen arteko lotura interesgarria irudikatzen duela. Azkenean hau hori delako: zubiak eta bideak eraiki, elkarri begira jarri, elkarren behar hori ezinbestekoa dugulako.

Babesle asko dauzka proiektuak. Guztiek zeregin bat dute, ezta?

Babesleak izatea garrantzitsua da, proiektuak ekonomikoki beharra du. Babes-ekonomikoa eta proiektuaren partaide izatea eskatu diegu. Eta partaide iza-

teko bakoitzari, bere eremutik, zerbaitetan eragitea tokatu zaio. Elkarrekin, bai modu profesionalan bai elkarte moduan, edo modu asoziatiboan edo indibidualki egin dezakegun ekarpena, hori da herriaren isla.

Horri guztiari gaztaren trukaketa gehitu behar diogu. Hari gidaria gazta hori izanen delako, ezta?

Gazta metafora da. Gure gizartearen borobiltasun hori ordezkatzeko du. Elikagai bat da. Horretara iristeko gure natur eta herri guneak kudeatu behar ditugu. Horrekin hizkuntza, kultura eta ekonomia sustatzen egiten da. Eta, gainera, iristen da gizarteko edozeinen platerera. Eta plater horren bidez aberastasun hori iristen da. Gazta da, nolabait, bidean elkar topatzeko balio digun metafora. Bi izendapen ditugu. Hirugarrena ere bai: Ossau-Irati. Haiek ere bide honetan agertuko dira. Baina egia da nire bi jatorriak, Arruazu eta Izaba ordezkatzeko dituzten gaztak, Idiazabal eta Erronkari jatorri izendapenak direla.

Garraiatuko duzun zure Albi gaztandegiko gazta berezia izanen da?

Gazta eginda eta grabatuta dago. Jarraipena egiten ari gatzazkio.


Gazta horrek egiten duen ibilbidea bigarren aldia izanen da. Orain gaztak Izabarako bidea egiten du. Baina duela 500 urte Izabatik Sakanara Erronkariko tropek egin zuten bidea, Nafarroako independentzia babesteko, Gaztelako tropei aurre egiteko asmoz. Horri esker lortu zen bai Gortea bai Nafarroako errege-erreginak ihes egitea. Eta haiekin artxibo guztia. Gaur egun daukagun historia-ondare asko salbatu zen erronkariar gidari horiek Sakanara etorri eta, nolabait, hemen oztopatu zutelako tropen sarrera. Orain gaztak kontrako norabidean egiten du bidea. Balio dezala horrelako aitortza baterako. Azkenean, gazta bakoitza berezia da. Artisau moduan ekoizten den gazta hori da: errepika ezina da. Zuk artzain baten gazta bat jaten duzunean ez duzu gazta berdina janen. Hori aberastasuna da. Aniztasun asko eskaintzen digun praktika bat da.

Alde fisikoari erreparatuta, etapaz etapa prestatu duzue.

Aurrena, Arruazutik Olagueraino izanen da: Aralar mendira San Migeletik igo, Ata ibarretik Madotzera, Goldaratz, Latasa, Imotz, Anue eta Atez ibarrak, Ultzama eta Basaburua ikutuz, Olaguen bukatzeko. Bigarren zatia Olaguetik Orbaitzetako olarainokoa da: Olague, Egozkue, Iragi gaina hartu eta handik Erroibarrera jaitsi Erro gainera igotzeko, han erromes bidea hartu Auritzerraino joateko, han GR-a hartu eta Orbaitzetako olara iristeko. Azken etapa Orbaitzetatik Izabaraino: Irati oihanetik Orhi mendira eta handik Lazako portura, Lazatik Uztarroze eta Izabara. Hiru zatitan egin dugu prestatuntza.

Nola daramazu prestatuta fisikoa? Aurreikusitakoa betetzen ari da? Mentalki nola zaude?


Arruazutik 07:00etan abiatuko naiz. Eta abiatzen naizen momentuan pentsatuko dut: bihar ordu honetan oraindik laster egiten ariko naiz. Hori da errealitatea. Ez ordu horretan lasterka ariko naizela, baizik eta oraindik ordu



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA
BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Bidegabe

Bidegabekeriek inguratzeko gaituztela ematen du azken aldian. Justizia izpiak hodei ilunek estali dituztela, ekaitz urrunen burrunba erasokorraren oihartzunean. Urrunetik gertura, etikaren heriotza geldoak etekin ekonomikoaren gose aseezinak kontsumitzen duela dirudi. Anestesiaturako hiritar prestuen aurrean lapur eta hiltzaile, ustel eta iruzurgile, dantzan dabilta joko makabroetan ase barik.

Urrun, peshmerga kurduekiko traizio zitala, mendebaldarren lotsa. Film amerikarrek saltzen diguten askatasunaren aldeko borrokan atzean utzitako beste herri bat, gure lantegiak saldatuak bonba hilgarrien biktima, turkiar gupidagabe baten sarraski. Europaren ahuleziaren adierazgarri, heriotza kolateralak petrolioaren jokoan.

Gertu, zigor bidegabeek ziegako iluntasunera kondenatuak estatuaren egituren etsaitzat hartzen diren oro. Prentsa

atzerakoenaren diana, gezur iraingarrienen ordain. Sententzia injustuak Pirinioen ardatzaren bazterretan. Oinaze eta sufrimendua heien familia eta lagunetan.

BIDEGABE, BALIO ETIKO OROREN LOTSAGARRI, NON DAGO HERRITARRENGANAKO KONPROMISOA, NON DAGO JUSTIZIA?

Instituzioengan konfiantza eza, norbanakoen antolakuntza. Bidegabe, balio etiko orenen lotsagarri, non dago herritarrenganako konpromisoa, non dago

justizia? Bide bazterrean geratu zela ematen du, aspertu egin ote gintuen, zaharkituztat ikusi al genuen? Etekin ekonomikorik gabeko zama astun eta kontzientzia zulatzailetzat hartu genuen nonbait. Preziorik ez duena, ezin saldu. Kostu huts, etekinik gabeko aingura. Jendartearen noraezean sarritan beharrezko euskarri.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

50 gizarte bonu lehenengo seihilekoan

IRATXE KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

Urteko lehenengo seihilekoan, Iratxek elektrizitateko 450 gizarte bonu izapidetu ditu. Modalitate honek argindarraren fakturan deskontu bat dakar eta familia ugari, pentsiodunei edo diru-sarrerara murriztua duten etxebizitzetara zuzenduta dago. Zoritxarrez pertsona askok ez dakite bonu hau jaso dezaketela eta horrekin etxebizitzako argindarrean aurreztu. Deskontua %25ekoa da erregulatutako tarifari dagokionez (potentzia eta kontsumoa), baina %40a arte heldu daiteke, baita %50a arte ere kontsumitzaile zaurgarrientzat.

Batzuetan bonuaren aplikazioa arin gertatzen bada ere, besteetan zailtasunak daude. Hona hemen zenbait adibide:

Informazio eza. Konpainiak erantzuten du eskatzaileak ez dela betetzen ez den eskakizuna zehazten edo ez du jakinarazten.

Ezezkua ez da jakinarazten. Eskatzaileari ez zaio gizarte bonua ematen, baina ezezkua ez zaio jakinarazten.

Errepikatzea. Batzuetan, kontsumitzaileak aurretik jada emandako dokumentazioa eskatzen du merkaturatzaileak.

Adingabeak. Pertsona askok uste du familiako adingabeak ez dutela sinatu behar, baina

hamalau urtetik aurrera sinatu behar dute.

Burokrazia. Zenbait eskakizun atzeratuegiten da izapideen arazoan ondorioz. Adibidez, zenbait merkaturatzailek ez zuen igortzeko organo eskudunak emandako desgaitasun agiria onartu eta gizarte-zerbitzuen bitartez eskatzen zuen.

Bonu termikoa. Aurreko urteko amaieran bonu termikoa ezarri zen. Horren ondorioz, abenduaren 31an elektrizitateko gizarte bonuaren hartzaileek lehenengo hiruhilekoan automatikoki jaso behar zuten beren kontuan diru-sartze bat bonu termikoaren kontura.

Orokorrean, diru-sartze hauek 60 eta 100 euro baino gehiagokoak izan dira, etxebizitzaren zaurgarritasunaren, etxebizitza dagoen gune klimatikoaren eta Estatuko Aurrekontuetan esleitutako idazpenaren arabera.



OBJEKTIBOTIK



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

fundazioa@guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675
Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martínez de Ilardua
gk@komunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Euskalgintzako ordezkariak azken epaiekin desadostasuna azaldu dute. UTZITAKOIA

Kontseiluak euskararen inguruko epaiak salatu ditu

Larunbatean, 12:00etan, Nafarroako Gobernuaren egoitzaren aurrean kontzentratzera deitu du

SAKANA

Kontseiluak Nafarroako Auzitegiak euskararen inguruan emandako azken bi epaiak "justiziari, berdintasunari eta kohezioari muzin" egiten dietela salatu du. Eta Nafarroako Gobernuak horiek bermatzea aldarrikatzeko kontzentrazioa deitu du larunbat eguerdirako Iruñean. Aldi berean, Kontseiluak epaiaren eta Nafarroako Gobernuak eginen dituen pausoen berri emango dio Europako Kontseiluari: "Eurogutunak ezarritakoaren kontra doa eta bertako konpromisoak ez betetzea litzateke epaiaren irakurketa murrizta egitea".

Paul Bilbao idazkari nagusiak gogorarazi du Nafarroako Parlamentuan Euskararen Legea aldatzeko batzorde berezian halako zerbait gerta zitekeela gaztigatu ziela. Bilbaok esan duenez, "herritarrei eskubideen aitortza

desberdina egiten bazaie, zailagoa da instituzioei eskubideak bermatzeko neurriak exijitzea". Bilbaok azaldu zuenez, epai murrizta izan arren, debekurik ez du ezartzen eta, beraz, ausardia eskatu dio Gobernuari beste garai bateko "hizkuntza-politika ilunetara" ez itzultzeko. "Epaiak dioen bezala, ahal terminoaren alde positiboa ulertu behar dute instituzioek; hortaz, legeak ezarritako eremu mistoan eta ez-euskaldunean neurriak hartzen jarraitu ahal dute, langileen euskara-gaitasunak baloratzen zein euskararen erabilera orokortuan. Iruñeko alkateak aurreratu du epaiaren irakurketa murrizta aplikatuko duela; Gobernuak berdin jokatu du?" galdetu du Bilbaok. Horrekin batera, Kontseiluko eledunak Gobernuari koherentziaz jokatzeo eskatu dio, bai eta kasazio-helegitea tarteratzeko ere.

Hizkuntza aniztasunaren festa Irurtzunen



Guaixe fundazioaren 25. urteurrenaren harira antolatutako ekitaldien barruan ospatu zen (L) Aniztasun Festa. Antolatzaileek jasotako dirua Irurtzunen harrera ikastaroa antolatzeko bideratu nahi dute

IRURTZUN

Duela 17 urtetik Itxipuru taldeak urtaro bakoitzarekin antolatzen duen bigarren eskuko azoka baliatu zen horretarako. Bestelako kontsumo eredu bat sustatzea du helburu azokak. Hala, nahi duen guztiak bere eskaintza egiteko aukera baliatzen du. Gaur egun Itxipurukoak Iruñeko Apoyo Mutuo (hipotekak kaltetutakoak) eta Altsasuko Ayuda Contenedores (hainbat herrialdeetara laguntzaz betetako edukiontzia bidaltzen ditu) taldeekin ari dira elkarlanean. Azokako eta tabernatxoan jasotako dirua Irurtzunen migratutako pertsonendako harrera ikastaro bat antolatzeko bideratuko da.

Euskarak ere izan zuen bere tokiak. Arakil eta Irurtzongo bost euskaldun berriri aitortza egin zitzaion. Euskara ikasiz euskaldungoaren sarea zabalduta, kolore gehiago eman eta jende gehiagorekin hitz egiteko bidea eman dutelako jaso zuten aitortza Luis Berazak (Izurdiaga), Miren Bajok (Satrustegi), Igor Lanzek (Satrustegi), Angelines Cuevasek (Irurtzun) eta Blanca Ilundainek (Irurtzun). Ahoibizi eta Belarriprest aldamenen zituztela oroi garri bana jaso zuten.

Mank-eko Aniztarrean kulturartekotasun zerbitzuaren sen-



Aitortza jaso zuten euskaldun berriak.

tsibilizazio txokoan hainbat hizkuntzari buruzko informazioa eta zerbitzuaren hainbat euskarri ikusi eta eskuratzeko aukera izan zen. Haren ondoan Iturmendin bizi diren eta bakarrik dauden adingabe atzerritarretako batzuk izan ziren jendearen izenak arabiar grafiaz idazten.

Itxipuru, Aizpea, Pikuxar, AEK, Mintzakide, Mank, Aniztarrean kulturartekotasun zerbitzua, Euskara zerbitzua eta Guaixe bat egin dute (L) Aniztasun Festaren antolaketan. Erakunde antolatzaileen berri ematen zu-

ten kartelen ondoan hizkuntza ekologiar buruzko makina bat mezu jaso ziren. Izan ere, aurtengoa Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea izendatu du Nazio Batuen Erakundeak (NBE). Munduan 6.700 hizkuntza daude eta haietatik %40 arriskuan daude, indigenak gehienak. Ondare hori babesteko aldarria egin du NBEk. Bide batez, Guaixe fundazioak aukera baliatu du jakinarazteko Mexikoko Yuuyum irratiarekin senidetuko dela. Aurrerago emanen ditu horren inguruko xehetasunak.



Gaur, 19:00etan, Lizarragako Bargazpin eta datorren ostegunean, 19:00tan Olatzagutiako Clinkerren

Dibulgazioa tabernetan

Zientzia tabernetan zikloak Lizarragako Bargazpin izanen du segida gaur eta Olatzagutiako Clinker tabernan ostegunean, 19:00etan. Hiruna adituk gai banaren inguruko argibideak eman eta entzuleen jakin-mina aseko dute

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Sakandarren artean zientzia kultura euskaraz sustatu asmoz antolatu du Zientzia Tabernetan zikloa Guaixe fundazioak, bere 25. urteurrenaren harira. Zientziari buruzko ziklo berezi horrek bederatzi ikerlari eta teknologo bildu ditu eta, zein bere esparrutik, zientzia gai bat azalduko du tabernaren giro lasaian. Hainbat esparrutako hizlariak dira hiru tabernetatik pasako direnak.

Eta hitza hartzen aurrenak Alaitz Ruiz de Luzuriaga, Miren Barberiak eta Karmele Gomez Garmendia izan ziren, Irurtzungo Pikuxarren, joan den ostira-lean. 20 bat pertsona izan zituzten adi-adi entzuten. Aurrena kimikaria da eta material plastikoen ezaugarrien berri eta dagoeneko gure artean dauden



material plastiko adimenduak zer diren azaldu zuen. Ruiz de Luzuriagak lan egiten duen Donostiako CIDETEC zentroan bere burua erreparatu zezakeen polimeroa sortu zuten. Terminator

plastiko horren lagina eskutan hartzeko aukera izan zuten. Entzuleei esperimenduak egin eta ura material plastiko bihurtzeko aukera eman zien Ruiz de Luzuriagak.



Ines Castiella Imaz

Iruindarra Energiatan Industria-Ingeniaria da. Gaur egun Goienarren lan egiten du.

Izenburua: Euskararen presentzia eta garrantzia gaur egungo zientzia eta teknologietan.

Laburpena: Graduondo baterako lan bat egin zuen eta hartan aztertu zuen euskarak ba ote duen presentziarik orain arte eduki ez duen zientzia eta teknologia bezalako alorretan. Lan horren emaitzak azalduko ditu Castiellak.



Joseba Aldasoro Galan

Altsasuarra, Nekazari Ingeniaritza Teknikoa ikasia, Agrobiologian doktorea da. 10 urtez Nafarroako Unibertsitate Publikoan Landa Fisiologiaren sailean aritu da, eta gaur egun Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zientzia irakaslea da.

Izenburua: Babarrunak izerditan blai?

Laburpena: Martxoan argitaratutako zientzia artikulua batean aurkeztutako emaitzak modu dibulgatiboan azalduko ditu. Beroa dugunean gorputzaren hozte-sis-

tema lanean jartzen da izerdia osatzen duten tantak sortuz. Eta landareek ba al dute hozte-sistematik? Jakina, eta oso garrantzitsua da gainera, eguzkiak gogor jotzen duenean ezin direlako itzalera mugitu. Hozte-sistema honi transpirazioa deritzo eta lurrunketaren bitartez gertatzen den ur galera bezala definitzen da. Baina landareetan sistema hori askoz konplexuagoa da, ura eta elikagaien garraioaren motorra delako. Ura dagoenean dena ondo doa, baina lehorteko baldintzetan transpirazioa jaisten da eta elikagaiak landarearen atal guztietara ez dira behar bezala banatzen. Elikatzeko modu berezia duten lekadunen familiako landareei antitranspirantea duen "landareendako desodorantea" aplikatuz, lehortearen efektuak arintzen direla ikusi dute. Beraz, guk izerdiaren kiratsaren kontrako desodoranteak erabiltzen ditugun moduan, landareetan, lehortean bizirauteko antzeko funtzioa duten antitranspiranteak erabili daitezkeen edo ez aztertuko du Aldasorok.



Nora Unzeta Zaballa

Altsasuarra, Farmazian lizentziatua, Kimika Analitikoan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateak Gas-teizen duen Farmazia fakultatean ari da, Kimika Analitikoa sailean.

Izenburua: Ardoaren faltsutzea detektatzeko teknika berriak

Laburpena: Europar Batasuneko Jabetza Intelektualerako Bulegoaren txostenaren arabera, ardoen eta likoreen faltsutzeak urtero 1,3 bilioi eurotako galerak sortzen ditu Europan, eta ondorio zuzenak ditu sektoreko ekoizle eta langileengan. Iruzur hori batez ere gama altuko ardoetan izaten bada ere, geroz eta ohikoagoak dira ardo arruntagoen faltsutzei buruzko albisteak. Faltsutze-teknika aurreratuak direla eta, gehienetan, botila bat ardo originala edo faltsua den jakiteko beharrezkoa izaten da ardo-botila zabaldu eta analizatzea, baina horrek ardoaren debaluazioa dakar. Arazo horri irtenbidea emateko, ardo-botilak zabaldu gabe, beraien jatorria ezagutzeko hainbat metodologia analitiko garatzen ari dira Unzetaren ikerketa taldean.



Mikel Lopez Saez de Asteasu

Altsasuarrak Fisioterapia ikasketak eginak ditu eta Doktoretza Osasun Zientzietan. Nafarroako Gobernuaren biomedikuntza ikerketarako Navarrabiomed zentroan ikertzen ari da eta Nafa-

rroako Unibertsitate Publikoan irakaslea da.

Izenburua: Ariketa fisikoa, osasunaren oinarri.

Laburpena: Ariketa fisikoa egiteak eragin positiboa du adineko pertsonengan, oso garrantzitsua eta baliagarria baita haien eguneroko jardue-
ra eta ekintzak egoki burutu ahal izateko. Jarduera fisikoa-
ren bitartez beste osasun esparruetan aldaketak eta hobekuntza lortzen dira, esaterako, garapen kognitiboan. Saioan, adinekoei ariketa fisikoa preskribatzeko bere ikerketa taldeak sortu eta prestatu dituen materialak aurkeztuko ditut.



Oihane Mayo Ijurma

Etzarriarra Biomedikuntzako Inge-
niaria da. Master bikoitza KTH
University (Suedian) eta SJTU
University (Txina) neurozientzia
eta informatikan orientatua. Urte
bateko ikerketa lana egin du aipa-
tu azken unibertsitateko Medical
Imaging Lab laborategian. Aldakin
SL enpresan ari da lanean.

Izenburua: Irudi medikoak eta
teknologia berriek medikuntzan
duten garrantzia

Laburpena: Teknologia era-
bateko bilakaeran dago, eta

medikuntzaren arloan aurrera-
pen handiak lortu dira honi esker.
Gaur egun, edozein gaixotasun
ikertzeko irudi medikoak era-
biltzen dira ohiko metodo gisa,
horretarako MRI (erresonantzia
magnetikoa), CT (ordenagailu
bidezko tomografia) edo PET
(positroi bidezko tomografia)
bezalako makinak baliatuz. Irudi
horien prozesamenduak garrantzi
handiko informazioa ematen du,
ondoren gaixotasunaren diagnos-
tiko zehatz bat eraikitzeko. Horretaz
aparte, irudi horiek teknologia
aurratuago batekin lotuta, esate-
rako, adimen artifizialarekin,
hainbat tumoreren sailkapena,
tumoreen prognosia edo gaixota-
sunaren jarraipen pertsonal-
izatua egin daitezke. Onko-
logian erabiltzen den teknologia
da hori, medikuek begi hutsez
ikusi ez dezaketen informazioa
modu erraz batean lortzeko
bidea baita eta, aldi berean,
diagnostiko egoki baterako
laguntza handia eskaintzen
baitu.



Saioa Larraz Arnanz

Altsasuarra Euskal Filologoa eta
Hizkuntzalaritzan Doktorea da
eta Euskal Herriko Unibertsitatean
dabil lanean.

Izenburua: Hizkuntzak ikastea:
zer dago horren atzean?

Laburpena: Hizkuntzak ikas-
tearen sekretuak azalduko ditu
Larrazak hitzaldi labor horren
bidez. Bigarren hizkuntza ikasten
hasten direnen ezin eta eginak
ere ukituko ditu, eta euskarak
dituen berezitasunez arituko da,
gureak hizkuntzen itsas zabalean
duen lekua ulertzen laguntzeko.

GUAIXE 2019-10-18 OSTIRALA

Segituan, Barberia biologoak,
berriz, guk botika bat farmazia
batean eskuratu arte egin behar
duen ibilbidearen berri eman
zuen. Tratamendu (eraginkor)
gabeko gaixotasunari buruzko
informazioa jasoz hasten dute
ikerketa. Tratamendu proposa-
mena egin eta entsegu pre-klini-
koak egiten dituzte, azkenik,
pertsonekin fase klinikoa egite-
ko. Barberiak argitu zuenez
ikerketan mugarik handiena
dirua falta da. Hura gabe ez dago
ikerketarik. "Proiektu txikiak,
oinarrizko ikerketa, 100.000 euro
ingurukoak izaten dira. Minis-
terioari eskatzen zaio laguntza".
Milioika euro behar dira ikerke-
ta dena botika moduan farma-
zietara iristeko. Dirutza hori
botika-enpresek eta inbertsio-
leek jartzen dituzte. Nafarroako
Unibertsitateko CIMA ikerketa
zentroan ikertzen ari diren Wil-
son gaixotasun arraroaren berri
eman zuen.

Azkenik, udazkeneko astroak
eta izarrei buruzko hainbat kon-
tu eta bitxikeria kontatu zituen
Gomezek. Horretarako, kode
irekiko www.stellarium.org bidez
taberna barruan Irurtzango ze-
rua ikusten jarri zituen bertan
zeudenak. Nazioarteko espazio
estazioa minutu gutxitan gaine-
tik pasatzekoa zela jakinarazi
zuen. Baita ipar-izarra nola bi-
latu ere. Horretaz aparte, berak
lan egiten duen Iruñeko Plane-
tarioan Zientzia, Teknologia,
Ingeniaritza eta Matematika
arloan (STEM ingelesezko labur-
pena) duten eskaintzaren berri
eman zuen eta haietakoren batean
parte hartzera gonbidatu zituen
irurtzundarrak.

Segida

Zientzia jakin-mina ase nahi
duenak bihitzordu ditu aurretik.
Zientzia Tabernetan zikloa Li-
zarragako Bargazpi tabernara
iritsiko da gaurkoan. Han lan-
dareen hozte sistema, botila za-
baldu gabe ardoaren faltsutzea
nola detektatu, euskararen pre-
sentzia zientzia eta teknologia
arloan izanen dira hizketa-bideak.
Heldu den ostegunean, berriz,
Olatzagutiko Clinker tabernan
hizkuntzen ikasketen atzean
dagoena, ariketa fisikoaren onura
eta teknologia berriak diagnos-
tikoan duten garrantzia ezagu-
tzeko aukera eskainiko du Zien-
tzia Tabernetan zikloak. Zientzia
gaietara hurbiltzeko aukera
Sakanan bertan.

Mikrobioak, gure lagunak direla ikasten ari dira Intxostiapuntan

Gazte talde bat ikastaro batean parte hartzen ari da eta gazte-gunea "laborategi bihurtzea" espero dute

ALTSASU

Intxostiapunta gazte guneko gela
bat ikasgela bihurtuta; 15 eta 23
urte arteko 16 ikasle eta bi gida-
ri: Patxi San Martin ikerlaria
eta Leire Palacios, Agrobiotek-
nologiko institutuaren ari den
ikerlari altsasuarra. Gaia: mi-
krobio lagunak. Ostiralean
izan zuten aurreneko klasea,
erabat praktikoa. Eta gazteak
hasi dira barneratzen organismo
txiki horiek zer diren, zergatik
edota zertarako balio diguten,
esaterako, jogurtetan, litxarre-
rietan, garagardoetan eta aba-
rretan. Parte hartu duten gazteek
mikrobioei buruzko aurreneko
saioa "atsegina eta praktikoa"
izan zela adierazi dute, "kontu-
ratu gabe asko ikasi eta disfru-
tatu dugu".

Mikrobioei buruzko ikastaroak
beste bi saio izanen ditu: lastai-
laren 25ean eta azaroaren 25ean,



Mikrobioez ikastaroa egingen dute. UTZITAKOIA

ostiraletan, 18:00etatik 21:00eta-
ra. Dohainik da. Intxostiapunta
gazte gunek hartzen duen ikas-
taroa Gazteekin egiten diren
Jardueretarako Nafarroako
Eskolaren diru-laguntza du eta
Altsasuko Udaleko Gazteria Zer-
bitzuak laguntzen du.



**izan.
argi!**

NAFARROA OINEZ'19
TUTERA

Eskerrik asko, Iñigo Aritza Ikastolari,
emandako laguntza guztiagatik
20ean Tuteran elkar ikusiko dugu
Eskerrik asko!



Kataluniari elkartasuna adierazteko deialdiak

Euskal gehiengo sindikalak deituta lantegietan kontzentrazioak eginen dira gaur. Gainera, 12:00etan Altsasuko udaletxe parean elkarretaratzea eginen da. Bestetik, Gure Esku Dago deituta Donostian manifestazioa eginen da, bihar, 17:30ean

SAKANA

Espainiako Auzitegi Gorenak Kataluniako buruzagi subiranista politiko eta sozialak zigortzen dituen epaia jakinarazi zuen astelehenean. Haietako bederatziri 9 eta 13 urte arteko espetxe zigorra jarri die eta gainontzeko hirurei isunak eta inhabilitazioak. Guztiei sedizioa eta diru publikoen erabilera bidegabea egotzi die auzitegiak. Epaia salatzeke Gure Esku Dago (GED) dinamikak deituta kontzentrazioak egin ziren Irurtzunen, Uhart Arakilen, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatzen, Altsasun eta Ziordian astelehenean *Erreferenduma ez da delitua, askatasuna! Gure erabakitzeke eskubidea defenda dezagun* lelopean.

Dinamikako kideek, epaia "demokraziaren kontrako eraso larria" izan dela nabarmendu dute. Epaiarekin "Espainiako estatuak berretsi du demokrazia larrialdi batean gaudela". GE-Deko kideek azpimarratu dutenez, "zigorrak ate handi bat ireki du eskubide zibil, politiko eta kolektiboak kriminalizatzeko: manifestazio eskubidea, adierazpen askatasuna, protestarako eskubidea, bozkatzeko eskubidea edota autodeterminazio eskubidea. Oinarrizko eskubideak era-



Ziordiarrek esteladak eta euskal ikurrak zituztela atera ziren kalera. GURE ESKU DAGO

biltzea ezin da delitua izan demokrazian. Botere publikoen ardura da haien erabilera bermatzea". GED-eko kideek erreferendumaren aldeko herri ekimena lantzen ari direla gogorazten dute.

Langileak gaur

ELAk, LABek, STEILASEk, ESK-k, Etxalde eta Hiruk deituta Kataluniari elkartasuna adierazteko kontzentrazioak eginen dira lantegietan. Euskal gehiengo sindikalarendako "botoa ematea ez da delitua". Epaiarekin

"estatuak mezu beldurgarria" bidali duela gaztigatu dute: "gure etorkizunari buruzko erabaki bat noizbait hartzeko itxaropena galarazi nahi digu. Epaia eskarmentu gisa dator".

Kontzentrazioekin sindikatuek adierazi nahi dute ez dela "sortu Euskal Herriaren eta herri katalanaren asmo politikoak isilaraziko dituen epairik, ez estatuarik". Gaineratu dutenez, "bilatuko dugu bidea beste herrialdeetako herritarren pare izateko". Sei sindikatuek mobilizatzeratu deitu dute.



Pentsioen alde, segida

Sakanako pentsiodunen eta adinduen koordinakundeko kideek jakinarazi dutenez, ilbeltza bitartean mobilizazio jendetsuak antolatzea espero du mugimenduak. Jakinarazpena Altsasuko udaletxearen atean egindako kontzentrazioan egin zuten, estatuan pentsio duinen aldeko mobilizazio ugari egin ziren egun berean, herenegun.

Maravillas husteagatik lau sakandar epaitu dituzte

22 auzipetuei usurpazio delitu arina leporatu diete. Bakoitzak 3.000 euro inguruko isunari jaso dezakete.

SAKANA

Iruñeko Alde Zaharreko Nabarrería auzoan dago Rozalejo markesaren jauregia. Eraikina Maravillas gaztetxea bihurtu zuten okupazio bidez 2017an. Bitan hustu zuten Nafarroako Gobernuaren aginduz. Aurreneko hustea joan den urteko agorrilaren 17an izan zen eta, horregatik, 22 pertsona daude auzipetuta, haien artean lau sakandar. Epaiketa maiatzaren 9an egitekoa zen, baina Nafarroako Gobernuak erantzukizun zibileko txosten berria aurkeztu zuen

azken unean, gaztetxearen huste operazioagatik (foruzainen hedapena eta eraikineko txiki-zioak) 37.750 euro eskatzen die auzipetuei. Defentsak babesgabetasuna argudiatu eta hura aztertzeke beta eskatu zuenez, azkenik, atzo egin zen epaiketa.

Iruñeko 4. zenbakidun Instrukzio Epaitegian egin zen epaiketa atzo eta 22 auzipetuei usurpazio delitu arina leporatu diete. 74.000 euroko isunari aurre egiten diote. Haien defentsek argudiatzen dute eraikinean izandako kalteak foruzainek eragin zituztela.

Txistor-festa ederra izan zen hamaikagarrena ere

Arbizuk herrian ekoizten den hestekiari eskainitako igandeak jendea erakarri zuen

ARBIZU

Trikitilarien doinuekin abiatu zen Txistor Eguna. 47 postuz osatutako azokan denetarikoa salgaiak izan ziren. Txistorra salgai eta dastatzeko. Plazako "sukaldetik" 120 kilo txistorra-

rekin egindako 2.000 bat pintxo banatu zituzten, ardo basoarekin batera. Txistorra, tripotak edota gazta egiten ikusi eta ikasteko aukera izan zen. Gainera, zenbait artisau euren postuetan ere lanean aritu ziren.

Urtero bezala, gastronomia lehiaketak jakin-mina piztu zuen. Txistor pintxoaren txapelketara bederatzi proposamen aurkeztu ziren. Epaimahaiko bost kideek *Infrentzua* pintxo saritzea erabaki zuten, haren zapore orekatuengatik. Endika Mendinueta arbizuarra izan zen txapela eta 100 euroko saria eskuratu zuena. Berak enpanadilla bat prestatu zuen eta han txistorra, tipula karamelizatua, txanpiñoi krema, pikillo pateia eta arbendolak sartu zituen.



Plazan txistorra pintxoak prestatzen.



Emakumezkoa erosketa gurdiarekin.

Herriko dendak aukeratzeak onurak dakartza

Udalak herrian erosketak egiteko gonbidapena egin du. Gaurtik azaroaren 8ra kanpaina eta gero sariak

IRURTZUN

Herrian bertan erosteak autoa ez hartzea eta, ondorioz, lasai eta eroso ibiltzea da Irurtzunen bertan erosteko arrazoi bat. Bestea izan daiteke Irurtzungo dendarien hurbiltasuna. Edo herriko dendak hor daudela eta azken uneren batean zerbait behar izanez gero konponbidea Irurtzundik bertatik atera gabe lortu daitekeela. Gainera, Irurtzungo dendetara joateko kalera atera behar denez, herriari bizitza ematen zaio. Eta zeinek ez du bere herria bizirik sentitu nahi? Horregatik, guztiagatik, Irurtzungo Udalak herritarrak bertako merkataritzaren alde egiteko gonbidapena luzatu die "herrian erosiz denok irabazle" kanpainarekin.

Kanpaina egiten den bigarren urtea da. Guztira saritan 1.250 euro banatuko ditu udalak. Lehen zatia Trinitateko festen aurretik egin zen eta orain heldu da bigarrena. Gaurtik azaroaren 9ra Irurtzunen erosketak egiten dituztenen artean banatuko dira sariak azaroaren 11n: herriko dendetan gastatzeko 50 euro euroko txartelak zozketatuko dira. Zozketan parte hartu nahi dutenek Irurtzungo 28 dendetaren batetik pasa eta dendariei galdetzea besterik ez dute.



Gaur egun 22 langile ditu adinduen egoitzak. ARTXIBOA

Bigarren osasun laguntzailea adinduen egoitzan

Bi lanpostu berri sortu dira: garbitzailearena, udan, eta bigarren Osasun Laguntzaile Tekniko postua, berriki

ALTSASU

Nafarroako Gobernuarekin hitzarmen markoa sinatu ondoren, Altsasuko Udalak Aita Barandiaran adinduen egoitzarako bi lanpostu berri sortu zituen: garbitokikoa eta astegunetan arratsalde eta larunbat goizetan lan eginen duen Osasun Laguntzaile Teknikoarena (OLT). Aurrenekoa udan hasi zen lanean. OLT, berriz, duela gutxi hasi da. Adinduen egoitzako patronatuko buru ere baden Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi digunez, "azken hilabeteen Espainia osoan lanpostu deialdia argitaratuta egon eta gero, kontratua sinatu dugu eta, jada, pertsona hori lanean ari da". Sortutako bi lanpostu horiek behin-behinekoak dira. Ollok jakinarazi digunez, "beharrezko txostenak ditugunean, egoitzako Errektoretza Batzordeak lanpostuak behin betiko izateko akordioa hartuko

du". Hori hilabete honetan izatea espero du alkateak.

Aita Barandiaran egoitzan dauden adinduen % 90ak mendekotasuna du. Horrek langileen lan karga handitu eta Enpresa Batzordeak goiz eta arratsaldeko lan txandako langile bat gehiago eskatu du. Ollok gogorarazi zenez, "aipatu Aurrekontu Egonkortasun Legeak kontratazioak egiteko muga zorrotzak jarri zituen, pertsonal-gastua ez igotzeko debekua".

Udalak eta langileek sinatutako hitzarmenaren arabera, egoitzako langileei soldatak igo eta lan orduak jaitsiko zaizkie 2021eko akabera bitartean. Lan ordu gutxiago eginen dituztenez, "lana aurrera ateratzeko langile gehiago beharko direla" gaitzatu zigun LABeko Arantxa Ibargoien Lizarazuk. Bitartean udalak lan poltsak osatzea da langileen eskaera.

Udalerako hautagaitza

Irañetako Udala berritzeko Orbelaren izeneko hautagaitza aurkeztu da, Jose Ignacio Arangoa Ziak, Sara Lakuntza Sanchezek, Ainhoa Beraza Maizak, David Beraza Vitoriak eta Odei Zabala Bengoetxeak osatutakoa. Iturmendin, berriz, ez da udala berritzeko hautagaitzarik aurkeztu. Beraz, Gobernuak Kudeaketa Batzordea izendatuko luke.



ARTXIBOA



Pala kalea zultzen ari zenekoa.

Gasa Felipe Gorriti kalera ere iritsiko da sarri

Auzokideen eskaerari erantzunez gas sarea kale horretan zabaldu da. Aralarren, bestalde, udalak itxiturak zabaldu ditu

UHARTE ARAKIL

Hilaren hasierarekin batera Felipe Gorriti kalean pala txiki bat zuloak zabaltzen hasi zen. Bere egitekoa herriko gas sarea kale horretara zabaltzea zen, kale horretako zenbait eskaerari erantzuteko. Gas hoditeria jarrita, egun etxeetarako gas sarbideak prestatzen ari dira.

Bestetik, behin betiko onartu da Itxesiko autokarabanen eta etxebizitza-ibilgailuen zerbitzuen eremua arautzen duen udal ordenantza. Txomin Uharthe Baleztena alkateak azaldu digunez, aldaketak, batez ere, tasak ordaintzeko moduan egin dira. Ordenantza moldatu aurretik eguneko eta gaueko egonaldiak hartzen ziren kontuan. Onartu berri den aldaketarekin behin ibilgailua sartzegatik egun oso-rako tasa pagatzen da.

Nafarroako Gobernuaren nekazaritza azpiegiturendako di-

rulaguntzari esker, Uharthe Arakilgo Udalak Aralar mendian Lakuntzarekin eta Arruazarekin duen mugan itxiturak jarri ditu. Uhartek azaldu digunez, Saldilat dermiotik kasik Lekunberrietik heldu den pistarainoko itxitura izan da egin dutena. "Gobernuak lana egiteko tarte txikia eman du eta azienda bildu eta kamioietan sartzeko itxitura ezin izan dugu egin. Heldu den urtean egiteko dirulaguntza eskatuko dugu". Itxitura hori La Parrillan egiteko asmoa zuen udalak, "baina ikusizko eragina handia zuen, Burunda guztian ikusten zen eta tokiz aldatuko dugu". Alkateak azaldu digunez, Santutegitik herrira jaisten den porlanezko pistaren aldamenen egin nahiko lukete, bigarren burni gurutzaren inguruan, pagadiak estalita. Bestalde, Agiriko despopulatuko elizan lanean izan dira udan Ondare taldekoak.

GURE AMETZA

Etxarri Aranazko jubilatuen elkarteak

FIDELIZAZIO ETA BAZKIDE BERRIEN HARTZE EGUNA

AZAROAREN 23AN 14:30ETAN

Bazkideentzako 10€
Bazkideak ez direnentzako 35€
10€ bazkide egiten badira
Izen emateko azken eguna azaroak 5



Ferian asto aziendari begira. ARTXIBOA

Ferriak, azienda eta gehiago

Gaur arratsaldean asteburuko ospakizunei helduko dio Altsasuk. Igandeko ferian zaldi-, behi- eta ardi-azienda izanen da, gehiena sakandarra. 75 postu ere izanen dira

ALTSASU

Abeltzaintzarekin eta nekazaritzarekin sekula galdu ez duen loturaren erakusleho bihurtuko dira, atzera ere, Altsasuko ferriak. Ospakizunen aurren Altsasuko Udalak bi ohar zabaldu nahi izan

ditu. Aurrena, etxeko eta familiako ardurak denonak direla. Bigarrena, ezezkoak ezetz esan nahi duela beti, eta erasoan kontrako jarrera hartu du. Bestela, ferietako etxajua gaur piztuko bada ere, ospakizunak bihar ha-

siko dira. Peñen herri bazkarian 200 pertsona elkartuko dira. Gainera, festetan parranderoena izan denaren mailot urdina banatzeko baliatuko dute bazkaloste. Peñetatik aurratu digutenez, lau hautagaietatik gehien bildu

dituenak %36,9n jaso ditu. Gai-nontzekoen babesa % 27,26,2 eta 9,9koa izan da. Kirol eskaintza zabala du asteburuko egitarauak: kick boxing-a eta boxeoa, Onddo lasterketa ez lehiakorra eta ibilaldia, ikastetxeen arteko krosa, aizkolarien lehia eta taekwondo erakustaldia.

Altsasu erabat itxuraldatuko da domekan feria egunarekin. Zelai kalean jokatu den zaldi lehiaketara 70 buru aurkeztuko dituzte 19 abeltzain sakandarrek. Epaileek zortzi mailatan hiruna sari emanen dituzte, baita Altsasuko ale onena saritu ere. Guztira, Altsasuko Udalak saritan 2.890 euro banatuko ditu domekan. Ferialeku kalean azienda erakusketa izanen da. Behie dago-kienez 44 buru izanen dira ikusgai, Senosiaingo batenak eta Sakanako lau abeltzainenak. Latxa ardiei dagokienez, sei ar-

tzainen hamar arsaldo ikusgai izanen dira.

Salmenta postu ugari ere izanen dira domekan. Gartzia Ximenez kaleak eta Foru plazak nekazaritzako elikagaien azoka hartuko du. Guztira 58 postu egonen dira, 41 kalean eta 17 plazan. Salmahaietan ezia, pastelak, ahatekiak, gazta eta hainbat esneki, txistorra, marmeladak, ogia, txokolatea, garrapiñatuak, txerri hestekiak, euskal txerri hestekiak eta beste izanen dira. Antolakuntzan aritu den Ceder-na-Garalurreko Susana Mendinuetak jakinarazi digunez, "pittaka produktu ekologikoa ere bere lekua hartzen ari da, esaterako: gazta, pastela, ogia, ezia..." "Jatekoa ez da bakarrik salmahaietan egonen. Herrian barna taloak erosteko lau postu izanen baitira. Gainera, ohiko azoka izanen da Baratzekobide plazan. Bestetik, erreminten eta makinaren erakusketa ere izanen da Otadiako Kristo Deuna kalean, guztira 17 postuk zabalduko dute euren eskaintza.

Ekoi-zleek postu horietatik 22 Altsasuko Udalarenak dira. Joan den urtean 10 erosi zituen eta aurreten beste 12 mustuko ditu. Udalak standak erosten segituko du hurrengo urteetan, "pittaka-pittaka 58 stand erosi arte", jakinarazi digu Mendinuetak. Eraketa horiek egiteko Nafarroako Gobernuaren Merkataritza eta Turismo Zerbitzuaren 3.921,66 euroko dirulaguntza jasotzen du udalak urtero. Bestetik, feria aurrera ateratzeko Altsasuko Udalak Nafarroako Gobernuaren 1.920 euroko dirulaguntza jaso du. Helburu berarekin diru-ekarpina egin dute ere Unamuno Pentsuak (1.500 euro) eta Lacunza Calor Group (500 euro). Ferietako aurrekontua 27.700 eurokoa da.

Ongi pasa ferietan!

Hijos de Goikoetxea
Tel. 948 467 217 - 948 882 241 - Gaitorri 88208 11 - ALTSASU

Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia

goza dezazuela Altsuko ferietan

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

BIL TOKI
TABERNA · JETIKER

ferietan ere, bokatak barran

948 467 876 · Altsasu



OSTIRALA 18

18:00 Etxafuegoa, Gure Etxea eraikinetik.
18:15 Haurrendako jolasak eta txokolate-jana, Foru plazan.
20:00 Kick Boxing eta boxeoa, Burunda pilotalekuan. Federazioa.

LARUNBATA 19

10:30 XII. Onddo Lasterketa, oinezko ibilaldia, Foru plazatik. Dantzaleku-Sakana Kluba.
11:00 XII. Onddo Lasterketa, ez lehiakorra, Foru plazatik. Dantzaleku-Sakana Kluba.
12:00 40. Ikastetxeen arteko ferietako krosa, Foru plazan. Dantzaleku-Sakana Kluba.
12:00 Altsasuko erraldoi eta buruhandiak, lortia kultur gunean,
15:00 Peñen bazkaria, foru plazan.
16:30 Peñen kafea, elkartzetxerik elkartzeko poteoa eta kalejira. Ibilbidean zehar auzatea.
16:30 XV. Pirinioko Artzain Txakurren Topaketa, Baratzekobide plazan. Espainiako Pirinioko Artzakurren Kluba.
17:30-19:00 Bordetxe abere zirkua, lortia kultur guneko zabalgunean.
18:00 Euskal Herriko 2. mailako Aizkolari Txapelketako Finala, Burunda frontoian. Euskadiko Herri Kirol Federazioa.
19:30-21:30 Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin, Foru plazan.
20:00-21:30 Peñen jaitsiera eta plazara iristea.
22:00 Zezensuzkoa.
22:00 Magrak jatea, gaztetxean.
Altsasuko Peñak.
23:30 Elektrotzaranga. Altsasuko

Peñak.
00:00-02:30 Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

DOMEKA 20

09:00-14:30 Zaldi lehiaketa eta sari banaketa, Zelai kalean.
 Zaldi azoka, Zelai kalean.
 Latxa ardiaren erakusketa, Ferialeku kalean.
 Behi erakusketa, Ferialeku kalean.
 Nekazaritzako elikagaien azoka, Gartzia Ximenez kalean eta Foru plazan.
 Erreminten eta makinaren erakusketa, Otadiako Kristo Deuna kalean.
 Azoka txikia, Baratzekobide plazan.
 Mikologia erakusketa, Garbitoki eraikinean. Altsasuko mikologia elkarteak.
 XXXIII. Argazki Rallya. Altsasuko mendigoizaleak.
 VIII. Sakanako Arte Azoka, lortia kultur gunean. Ardebide taldea.
12:30-13:30 Kalejira, Dantza eta Musika Eskolako fanfarrearekin.
18:30 Taekwondo erakustaldia, lortia kultur guneko zabalgunean. Bargagain Kluba.
19:00-20:00 Hutsun txalaparta taldearen kontzertua, Foru plazan.
20:00 Japoniar bonbak, buruhandiak eta zezensuzkoa, Foru plazan.
Oharra:
Igandean, feria dela eta, autobusak Aita Barandiaran adinduen egoitzaren pearean geldituko dira.

"Joan, ikusi eta jabeei galdetu diezaiotela"

XV. Pirinioko Artzain Txakurren Topaketa hartuko du Altsasuko Baratzekobide plazak larunbatean, 16:30ean. Hainbat animalia ikusita, bertako arraza gertutik ezagutzeko aukera izanen da

ALTSASU
 Hego Euskal Herriko, Aragoiko, Kataluniako eta Galiziako 20tik gora artzakur edo mastin izanen dira Altsasuko biharko topaketan. Haren prestaketan burubelarri dabil Andoni Beramendi Espinosa altsasuarra. Esan digunez, "txakur jabeak kasik lagunartea gara". Horregatik, topaketaren aurretik txakur-jabe guztiak elkarrekin bazkalduko dute. "Halako topaketak norbere artzakurrak ezagutzera eman eta gustuko animaliak ezagutzeko balio digute jabeoi. Arraza nola dagoen ikusteko. Gero gurutzetak egin edo kumeren bat erosteko". Hazle altsasuarrak aitortu digunez, "garestia da txakurrak haztea eta batetik bestera topaketa eta erakusketara mugitzea".

Baratzekobide plazatik pasatzen direnek morfologia azterketa batekin egingen dute topo. "Ring bat muntatu eta epaile batek artzakurrak gelditu, oinez eta trosta egiten daudela aztertuko ditu. Ukitzen uzten ez bada kanporatua da. Epaileak, besteak beste, animaliaaren egitura, mugimendu arina edota aho ona duen aztertuko ditu. Arrazaren estandarren arabera baloratuko ditu mastinak". Hainbat sailkapen dituzte halako topaketek, hasi kumeenetatik eta txapeldun mailara arte. "Irekia deitzen den mailakoak dagoeneko txakur helduak dira eta horkoak dira irabaz dezaketenak". Beramendik azaldu digunez, Altsasuko topaketa izatean Espainiako Pirinioko Artzakurren Klubaren barne baloraziorako baliagarria izanen da soilik. "Erakusketa banalitz txapelketetarako puntuak banatuko lituzke".

Beramendik Larresalkoak izeneko bere haztegiko Pirinioko lau mastin aurkeztuko ditu bihar: "Artzakurra bertako arraza da. Garai batean Nafarroako mastina deitzen zioten. Txakur handia



Epailea lanean. ARTXIBOA

da. Kumeak 600-700 gramorekin jaiotzen dira, baina ar helduek 70-75 kilo dituzte, 65-70 emeek. Soingurutzeko garaiera 70 eta 85 cm artekoa da". Tamaina handiko txakurra bada ere, "ez dira animalia erasokorrak. Izaera dute. Aurrekoan Eulaten izan ginen eta hurrek ederki izan ziren haiek. Artzakurrak oso zaintzaile onak dira. Horregatik erabili izan dituzte mendian azienda zaintzeko, artaldeak batere ere". Beramendik animaliak ezagutzeko gonbidapena egin du "Pirinioko mastinak San Bernardo, Bernako itzain edo Frantzia aldeko Pirinioetako menditxakurretatik bereizteko".

9:00-14:30 Zaldi lehiaketa eta sari banaketa (ZELAI) Zaldi azoka (ZELAI) Ardi latxen erakusketa (FERIALEKU) Pirineotako behi erakusketa (FERIALEKU) Nekazaritzako elikagaien azoka (GARTZIA XIMENEZ - FORU PLAZA) Erreminten eta makinaren erakusketa (STO. XTO DE OYDIA) Azoka txikia (BAJUTZAKOBIDE PLAZA) Mikologia erakusketa (GARBITOKI) AITE: Altsasuko Mikologia Elkarteak XXXIII. Argazki Rallya AITE: Altsasuko Mendigoizaleak Sakanako VIII. Arte Azoka (LORTIA) Antolatzen du: Ardebide Taldea	12:30-13:30 Kalejira, Dantza eta Musika Eskolako Fanfarrearekin 18:30 Taekwondo erakustaldia (LORTIA) AITE: Bargagain Taekwondo cluba 19:00-20:00 Kontzertua: HITSUN txalaparta (Sagar lantegia) (FORU PLAZA) 20:00 Japoniar bonbak, buruhandiak eta zezensuzkoa (FORU PLAZA)
---	---



Ikasle lakuntzarrak sari banaketan Ainhoa kantariarekin izan ziren. NUP

"Emakume zientzialari izan nahi dut" sariak Lakuntzara

Antezlanean oinarrituta egindako lanengatik, eskolako ikasleek lehen saria eta akzesita eskuratu zituzten

LAKUNTZA

Lakuntzako Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5. ikasmailetakoko ikasleak bi sarirekin bueltatu ziren Nafarroako Unibertsitate Publikotik (NUP) ostira-lean: mailako onenarena (eskolarendako tablet bat eta ikasleendako NUPen sustapen materiala) eta akzesita (NUPen artikulua eta Iruñeko Planetariorako eta Donostiako Eureka Zientzia Museorako sarrerak). Gainera, Lakuntzako Herri Eskolako liburu sorta bat jaso zuen opari. Hamar ikasle izan ziren NUPen sari banaketan: Alain Berastegi, Dji-

bril Diouf, Iker Escudero, Laida Garziandia, Osama Handi, Julen Larraza, Luca Martinez, Idoia Miranda, Ekain Ramajo eta Olaia Razkin. Aldamenean senitarteak eta irakasleak izan zituzten.

Joan den ikasturtean "Emakume zientzialaria izan nahi dut" antzezlanak ikusi zuten ikasleek irekita zegoen. Sarietara antezlanean agertzen diren iraganeko edo egungo emakume zientzialariek loturiko lan bat aurkeztu behar zuten. Lakuntzarrek aurkeztutako bi lanak saria izan zuten, lehena eta akzesita.



Guaixeren hemeroteka Etxarrin

Guaixek abenduan 25 urte beteko dituela eta bere hemeroteka sakandarren esku uztea erabaki du. Horretarako, hemeroteka liburategiz liburutegi ari da ibarrean barnako bidaia egiten. Dagoeneko Urdaindik, Ziordiaik, Altsasutik. Arbizutik, Iruñetik eta Irurtzundik pasa da eta astelehenetik Victoriano Huizi udal liburutegian dago.

Santa Marinan berritzeko lanekin jarraitzen dute

Dagoeneko sei larunbatetan Urbasa gaineko ermitara igo dira auzolana egitera bakaikuarrak eta iturmendiarrak. Santa Marina ermitan aritu dira lanean larunbat goizetan. Eraikin barruko paretetako harri arteko morteroa erori egiten da neguko hezetasunarekin. Mortero zaharra kendu, harri tarreak garbitu eta hezetasunaren kontrako zementu berezi batekin hartzen ari dira pareta guztiak. Iturmendiko ermitau Juan Mari Lanz Lopez de Goikoetxeak azaldu digunez, "larunbatero zortzi edo hamar lagun elkartzen gara. Behin dozena bat izan ginen". Azaldu digunez, iturmendi baina bakaikuar gehiago ari dira Santa Marina ermita berritzeko auzolanean.

Lanzek azaldu digunez, "espero baina jende gehiago agertu da. Pitteka-pitteka ari gara lanean". Ermitan lanean ari direnak segitzeko gogotsu daudela ere argitu digu iturmendiarrak, horregatik, "bizpahiru astetan urgenteena despeditu nahi dugu". Auzolan horretara batu nahi duenak Santa Marinako ermitauekin harremanetan jarri behar du, Bakaikun Juan Jose Urrestarazu eta Iturmendin Lanz bera. Izena eman beharra dago mendi gaineko ermitara joateko autoak antolatzeke.

Euskal lurraldetasuna Andiatik aldarrikatzen

Andiako Olibesarion, Euskal Herriko erdigune geografikoan, ekitaldia egin zuen Independentistak Sareak, Iratxo mendi taldeak eta Sakanako Mendizaleak. Bezperako euriak sortutako lokatzari, hodeiei eta hego haizeari aurre eginez mendizaleak Andiarra igo ziren. Laino artean eta giro hotzari aurre eginez, rrdigune geografikotik Euskal Herriaren lurraldetasunaren aldarrikapena egin zuten Nafarroako Mendi Federazioko Koldo Aldazek eta Independentistak Sareko Txutxi Ariznabarretak. Mikel Olló, Irurtzungo bertso eskolako kidea, bertsoan aritu zen. Mendikoak eginda Irañeta-ko bordan bazkaria izan zen.

Altsasuko auziko zigorrak "neurrigabeak" dira

Auzian "justizia" izan dadila eskatu eta gurasoek antolatutako ekimenetan parte hartzera deitu dute

ALTSASU

Espainiako Auzitegi Gorenak 50 urte eta 8 hilabeteko espetxe zigorrak jarri zizkien Altsasuko auziko zortzi auzipetuei. Astear-tean hiru urte bete ziren "gertaera triste haietaz, sekula gertatu behar ez zutenak". Altsasuko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak auzipetuei ezarritako zigorrak "neurrigabeak" direla ziurtatu du. "Neurrigabekotasun hori epai-prozesu guztian izan da, gertakariak terrorismo gisa kalifikatzean, ikertzean, auzipe-ratzean eta Espainiako Auzitegi Nazionalaren zigorrean. Neurrigabekotasuna ere behin-behineko espetxeratzearekin agerian gelditu da".

Altsasuko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak berretsi du auzia Nafarroako Lurralde Auzitegiak ikertu eta epaitu beharko lituzkeela, eta ez Espainiako Auzitegi Nazionalak. "Hari epaitzeko eskumena Espainiako Auzitegi Gorenak eman zion, gertakariak ustezko terrorismo delitua izateagatik. Gero epaitegiek baztertu duten delitua. Beraz, epaile naturalaren eskubidearen ukapena izan da" Altsasuko auzian. Aldi berean, udalak "neurrigabeak zigorrak jartzeko politikaren eta hedabideen presioa" salatu du. "Presio horrek eragin zuen gertakariak terrorismo delitu gisa kalifikatzea eta auzia Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku gelditzea".

Onartutako adierazpenaren bitartez Altsasuko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak bakearen eta elkarbizitzaren alde lan egiteko "gogo irmoa" adierazi du eta altsasuarrei "bide horretan segitzeko deia" egin die. Aldi berean, "auziaren epai- eta hedabide-tratamenduaren aurrean herriarrek izandako jarrera zibiko sendoa" aitortu du Altsasu Udaleko Bozeramaileen Batzordeak.

Gazteek auziko mobilizazioetan parte hartzera deitu dute

Espainiako Auzitegi Gorenak Altsasuko auzian emandako epaia dela eta, Nafarroako hainbat gazte kolektibo, talde, antolakunde eta elkartek auziaren lege eta hedabide trataera gaitzetsi zuten herenegun. Euren iritziz auzibidean zehar izandako urraketak zerrendatu zituzten. "Gertakari horien trataera, bai juridikoa bai mediatikoa, Altsasuko gateria kriminalizatzeko saiakera uzten dute agerian" nabarmendu zuten. Eta adierazi zuten "beharrak" deritzotela "gertakari horien trataeraren larritasunari buruz Nafarroako gazte guztien kontzientzia hartzea. Proporzio-naltasuna, justizia eta oreka eskatzen dugu. Era horretako sententziek gartzetia eta gure eskubideak arriskuan jartzen baitituzte. Gaur Altsasu izan da, bihar zu izan zaitezke", gaztigitu zuten.

Altsasu Gurasoak taldeak eta Altsasukoak Aske herri plataformak antolatutako ekitaldietan parte hartzera deitu zuten. Batetik, hilaren 26an, 17:00etan, Iruñeko Justizia Jauregiaren parean egingen den kontzentrazioan parte hartzeko. Eta, bestetik, azaroaren 2an "txikitasunetik egia erin" lelopean Altsasun egingen diren elkartasun kontzertuetan parte hartzeko gonbidapena luzatu zuten.

Axio gogoratzeko ekitaldia antolatu du AEMk

Sakanako Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren kontrako Mugimenduak (AEM) Juan Inazio Erdozia Larraza gogoratzeko ekitaldia antolatu du bihar, 12:00etan, plazan. Hilaren 10ean 40 urte bete ziren Poliziarekin tiroketa baten ondoren Lizarrutiko portuan hilik agertu zela, bere kideak han utzita.

Bestalde, AEM-k gudari eguna dela eta Sortuk Axioen irudia erabili izana salatu du. AEM-tik jakinarazi dutenez, "Axioen familiak Sorturi haien senidearen irudia eta izena erabiltzea ukatu" zien duela bi urte. Hilda-koaren irudiaren erabilera "inposiziotzat" eta "familiarengana erasotzat" jo du AEM-k.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 18

ALTSASU VIII. Altsasuko Arte Azokaren mustutzea.
18:00etan, lortia kultur guneko erakusketa gela.

ALTSASU Feriagazte. Karaokea eta merienda autogestionatua.
18:00etan, Intxostiapunta gazte txokoan.



LIZARRAGA
Guaixerekin zientzia tabernetan.
Joseba Aldasoro (agrobiologia), Nora Unzeta (kimika analitikoak) eta Ines Castiella (energia berriztagarriak).
19:00etan, Bargazpi tabernan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

IRURTZUN *Esto no me lo esperaba* Zanguango Teatro konpainiaren antzezlan.
20:30ean, kultur etxean.



ETXARRI ARANATZ *Rita* gazte-helduendako antzezlanaren emanaldia Aitziber Garmendia eta Joseba Apaolaza aktoreekin.
22:00etan, kultur etxean.

ALTSASU *Objetivo: Washington D.C.* gaurkotasunezko filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 19

ITURMENDI Santa Marina konpontzeko auzolana.
08:00etatik 14:00etara, plazan.

ALTSASU Altsasu-Agurain-Opakua-Urbasa-Altsasu 75 km-tako ibilbidea eginen du Barranka errepidekoak.
09:00etan, suhiltzaileen egoitzaren paretik.

ETXARRI ARANATZ Axioeren erailketaren urtemuga.
Sakanako Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren kontrako Mugimendua.
12:00etan, plazan.

ALTSASU Gazte agenda. Proiektzioa palomitekin.
18:00etan, Intxostiapunta gazte txokoan.

IGANDEA 20

ALTSASU Lezera 30 km-tako ibilbidea eginen du Barranka BTT taldeak.
08:30ean, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU *Objetivo: Washington D.C.* gaurkotasunezko filmaren emanaldia.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 21

ALTSASU Pentsio duinen alde.

Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea.
12:00etan, plazan.

ASTEAZKENA 23

ALTSASU Literatur solasaldia euskaraz: Fertxu Izquierdo idazlearen *Mendeku borroka* liburua.
18:30ean, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 24

ARBIZU Koop-Fabrika. Sakanako ekintzaile sozial eta kooperatiboa sustatzeko programa. Saio teorioko-praktikoak.
16:00etatik 20:00etara, Utzaganen.

ALTSASU *Agur Etxebeste!* gaurkotasunezko filmaren emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU *Yo, Tonya* zineforum filmaren emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.



OLATZAGUTIA
Guaixerekin zientzia tabernetan. Saioa Larraza (hizkuntza-jabekuntza), Mikel Lopez (fisioterapia) eta Oihane Mayo (biorobotika).
19:00etan, Clinker tabernan.



ETXARRI ARANATZ Guaixe 25. urteurren. Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa ibiltaria.
Urriaren 14tik urriaren 25ra arte. Astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:00etara.



ALTSASU Altsasuko Arte Azoka. Urriaren 18tik azaroaren 2ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneko erakusketa gelan.



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU - Tel./Fax: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860



OROIGARRIA



Mikel Apaolaza Mendia

I. urteurrena

Urte bete da joan zinela Mikel, gure Mikel, urte luze bat. Urte bat zure irrifarra, zure umorea eta zure bizipoza ondoan izan gabe. Baina gurekin zaude, ezin ahaztu guretzat izan zinena, eta oraindik ere zarena. Egunero sentitzen zaitugu gurekin, uneoro, eta horrek indarra ematen digu aurrera egiteko.

Maite zaitugu Mikel, gure Mikel

Urteurren meza astelehenean, urriaren 21ean, arratsaldeko 19:00etan Urdaingo elizan

IRAGARKI SAILKATUAK

IBILGAILUA

SALDU

Arbizun Massey Ferguson traktorea salgai: 400 ordu, trakzio bikoitza eta aire girotua. 6 zilindrotako Perkins motore ingelesa, 24 abiadura. Aukera paregabea, eskaintza barregaririk ez, mesedez. Argazkiak www.guaixe.eus-en ikusi. Kontakturako deitu 600 387 400 tfnora.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAERA

Sakanako emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, arratsaldez edo gauez, baita egun solteak ere. Espeziertzia frogagarria. 618 855 249

LEHIAKETA

15. KAMERATOIA Lekeition (Euskal Herriko ikus-entzunezkoen rallya): Parte hartzeko epea urriaren 23ra arte zabalik <https://irudienea.topagunea.eus/egitasmoak/kameratoia/> webgunean (Lekeition aterpetxean egonaldia eta gosaria doan izena ematen duten lehen 30 laguntzat) Gaia urriaren 25ean emango da, grabaketak 26an hasi (Lekeition bertan) eta 27an ikusgarri zine aretoan aurkeztuko dira. Film labur hoberenarentzat 1000 euroko saria, bigarrenarentzat 600 euro eta Publikoaren Saria egongo da ere.

Instagram BOTABA Euskal Esamoldeen Erronkaren 3.edizioa: Gazteentzako lehiaketa aurten beritasunekin eta egundoko sariarekin dator. "Beroketa-fasea" urrian hasiko da nola parte hartu ikasteko. Erronka Azaroaren 4tik 25era izanen da. Labayru Fundazioak antolatuta.

OHARRAK

Arakilgo kultur irteera: Bizkaiko Muskiz herriko El Pobal eta La Arboleda meategi eta burdinolak ezagutzeko aukera izanen da hilaren 26ko txangoan, 10:00etan abiatuta eta 18:30ean buelta eginez. Interesa dutenek hilaren 22ra arte eman dezakete izena udaletxean edo 948 500 101 telefonora hots eginez. Arakilen erroldatutakoek 25 euro ordaindu beharko dituzte, 12 haurren kasuan eta ibarrean erroldatua ez daudenak 30 helduek eta 15 haurrek.

Etzarriko irakurle taldea: azaroaren 7an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian elkartzeko dira eta Amelie Nothomb-en "Durduraz eta dardaraz" liburuz arituko dira. Gonbidatuta zaude.

Argazkilaritza hastapenak ikastaroa Arakilen: azaroak 4/6/18/20 astelehenetan eta asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara, Itziar Matxain-ekin. Erroldatuek 30 euro (ez erroldatuek 40 euro). Izena emateko epea urriaren 30ean amaitzen da, Arakilgo udaletxean.

Gazte bazkarirako izen ematea: Irurtzun-Arakilgo Gazte Asanbladak Gazte eguna antolatu du azaroaren 2rako. Egun horretako bazkarira joan nahi duenak Pikuxarren eman behar du izena.

Bakaikuko Udalarren informazioa WhatsApp bidez jaso nahi duzu? Bandoak, udalbatzen aktak, jarduera, jakinarazpen eta informazio orokorra, etab jasotzeko deitu edo bidali mezu bat 622 268 161 zenbakira eta informazioa bidaliko dizugu.

AHT-ko lanetara mendi martxa: Mugitu! Mugimenduak azaroaren 23 eta 24ean Marzilla eta Tafalla artean AHTaren aurkako mendi marxa bat antolatu du. Helburua tarte horretako AHTaren proiektua ezagutzeko eta abiatu dituzten lanak bertatik bertara ikustea da. Baita, zonaldeko oposizioarekiko harremanak estutzea eta martxak zeharkatuko dituen herrietan informazioa zabaltea da ere. Argibide gehiago: <http://mugitu.blogspot.com/>

Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntzearen eraikina zaharberritzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortzen emateko zati bat bueltatuko diote.

www.iragarkilaburrak.eus



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

- **Amal Bakache Khardaoui**, urriaren 8an Olaztin
- **Aaron Comanucci**, urriaren 9an Olaztin
- **Maidier Martinez Carballeda**, urriaren 9an Altsasun

EZKONTZAK

- **Maria Villar Oteiza eta Iñaki Morillas Gonzalez**, irailaren 28an Hiriberrin

HERIOTZAK

- **Mercedes Alegria Alegria**, urriaren 11n Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGU, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

✉ @Grupolrache

f Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

SOKATIRA Arbizun hasiko da Nafarroako Sokatira Txapelketa

Asteburuan hasiko da Nafarroako 8x8 Goma Gaineko Sokatira Txapelketa. Guztira 4 jardunaldi jokatu dira. Gizonezkoak pisu bakarrean lehiatuko dira, 600 kilotan, eta zortziko taldeak izanen dira. 2 jardunaldi jokatu dituzte, liga sistema bidez. Emakumezkoak, berriz, bi pisutan lehiatuko dira, 520 kiloetan eta 480 kilotan, zortziko taldeetan, pisu bakoitzeko bi jardunaldi jokatu dira, liga sisteman. Horretaz gain, talde mistoen txapelketa egonen da; kasu honetan zortziko taldeak lehiatuko dira, 550 kilotan, bi jardunalditan.

Nafarroako 8x8 Goma Gaineko Sokatira Txapelketa larunbatean hasiko da, Arbizun, 17:00etan, Arbizuko kiroldegian. Hain zuzen ere Gizonezkoen 600 kiloko txapelketako lehen jardunaldia eta Emakumezkoen 520 kiloko lehen jardunaldia izanen dira jokoan jarriko direnak.

Gizonezkoen 600 Kiloko Txapelketan Lesakako Beti-Gazte, Berriozar, Antsoain eta Txantrea lehiatuko dira eta Emakumezkoen 520 Kiloko Txapelketan Lesakako Beti-Gazte, Antsoain eta Txantrea.

Nafarroako 8x8 Goma Gaineko Sokatira Txapelketako hurrengo jardunaldiak Elizondon (urriak 26, 17:00), Leitzan (azaroak 2, 17:00) eta Lesakan (azaroak 9, 17:00) jokatu dira.

Ezkurdia: "Unaik potentzial handia dauka"

PILOTA Lau T'erdiko final-laurdenetako ligaxkako 2. jardunaldian Joseba Ezkurdiak aurten ustekabea ematen ari den Unai Laso izango du aurkari bihar Bilbon (17:45, ETB1). Nahiz eta arbizuarra faboritua izan, partida zaila espero du

Lau T'erdiko Pilota Txapelketa final-laurdenetako lehen jardunaldian Bengoetxea 8 tantotan uztetik iritsi da bigarren jardunaldira Joseba Ezkurdi. Eta bihar, larunbata, txapelketako sorpresetako bat den Unai Laso biskarretarra izanen du aurrez aurre arbizuarrak Bilboko Bizkaia pilotalekuan. Aurreko larunbatean erakustaldi bikaina eman zuen Lasok Altsasun, Artola 9 tantotan utzi zuen. Astearteko material aukeraketan, gustura azaldu ziren Martin Alustizak aurkeztutako pilotekin.

"Pilota onak dira, gustura geratu naiz. Berarekin igual bajuxeagoak dira, baina berak bere gustuko pilotak baditu eta nik nire gustukoak, ongi" azaldu zuen arbizuarrak. Lasok ere aurkeztutako materiala "ona" zela adierazi zuen. "Pilota txukunak dira. Ezkurdiarenak pixka bat gehiago ibiltzen dira goitik, berari hori komeni zaio, baina pilota onak dira.



Ezkurdia, aukeratutako pilotekin. ASPE

Ezkurdia: "Laso oso pilotari arriskutsua da"

Joseba Ezkurdiarendako, Lasoren kontrako biharko partida "zaila" izanen da. "Unai oso pilotari arriskutsua da, oso erasokor jokatzeko du eta izugarri es-

tutzen du. Konfiantza ikaragarriarekin dago, oso puntu onean. Potentzial handia dauka, joko maila altua, txapelketako ligaxkan lehenengoz sartu da eta gauzak oso ongi egiten ari da. Bere mailarekin sorpresa hartu ahal dudan? Gaztea da, baina erakusten ari da ikaragarri ari dela jokatzeko. Kontuan hartzeko pilotaria da" aipatu zuen.

Ezkurdia momentu onean dago. Egungo txapelduna bikain aritzen final-laurdenetako lehen jardunaldian, eta sentsazioak oso onak dira. "Ongi nago, aurreko partidara tentsio pittin batekin joan nintzen, urduritasun puntu batekin, txapelketako lehen partidaren gertatu ohi den bezala, baina oso ongi egin nuen beroketa, tentsioa kanporatu nuen eta Bengoetxearen kontrako partidaren oso zentratua egon nintzen, partidatik ia atera gabe, eroso. Ongi ikusi nuen nire burua, sentsazio onekin, ea ere larunbatean Bilbon sentsazio horiek

ditudan. Dena den, argi dut Unai- ren kontra nik nire lana oso ongi egin behar izango dudala, eta esperantza horrekin nago" gaineratu zuen.

Arbizuarrak ez omen du txapelduna izatearen presio hori sentitzen. "Nahiko genuke urtero faborito izatea... (kar, kar). Ea txapelketa ona egin eta txapela lortzeko borrokan gauden. Badakit kantxan batetik bestera mugiarazi nahiko nauela, baina nik bera ere. Kantxako erdigunea hartu eta tantoan ahalik eta gehien agintzea izango da gakoak. Partidan guztiz sartuta egon beharko dut, tantoz tanto jokatu eta ea zer ateratzen den" aitortu zuen arbizuarrak.

Laso: "Igdandean ikusi genuen zelako sasoiaren duen txapeldunak"

Unai Lasok argi utzi zuen Ezkurdiaren kontra partida "oso gogorra" espero duela. "Igdandean argi ikusi genuen zelako sasoiaren duen txapeldunak. Ea zer egiten duan", adierazi zuen. Txapelketako sorpresetako bat da Laso, eta Biskarreta Gerendiangoak aipatu zuen "konfiantza gehiagorekin" dagoela eta partidatan "gehiago zentratzen" ari dela. "Hori oso garrantzitsua da txapelketarako" gaineratu zuen. Argi du partida zaila izango dela. "Ezkurdia kantxan mugiarazi behar da, pilotari oso altua delako, baina egia esan fisikoki oso ongi dago eta zaila izango da" aitortu zuen.

Altsasuk erabakiko du Euskal Herriko 2. Mailako Txapelketa

AIZKORA Bihar, larunbata, final handia jokatu da Burunda pilotalekuan, 18:00etan

Altsasuko feriak ekitaldiz beteta datoz. Eta aizkorak badu bere txokoa. Euskal Herriko 2. Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu da bihar, larunbata, 18:00etan Burunda pilotalekuan. Etxarriko ferietan jokatu diren kanporaketan sailkatutako lehen sei aizkolariek lortu zuten finalerako txartela: Juan Jose Lopez Azpilikueta, Jon Irazuk, Aratz Mugerzak, Jose Antonio Etxeberriak, Eloy Corcherok eta Arkaitz Jauregik. Iban Resano dorrobarraren finalerako kanpo geratu zen. Eloy Corchero eta Arkaitz Jau-

regi arabarrak Sakanako Aizkora Eskolan trebatu ziren eta Arabarekin lehiatzen dira, baina Sakanan bizi dira.

Etxarri Aranazko kanporaketako irabazlea, Lopez Azpilikueta dago faboritoren artean; Lezaungoa lehen mailatik jaitsi berria da eta denboraldi bikaina egiten ari da. Baina gainontzekoak gertu izango ditu; hortaz, ikusmina handia da.

Egurrak, Urbasaoko

Finalean, ondokolana egin beharko dute aizkolariek: sei pago-

enbor erdibitu, bi kanaerdiko (54 ontzakoak), bi 60 ontzako eta bi oinbiko (72 ontzakoak).

Euskal Herriko Herri Kirol Federazioak antolatutako txapelketa, baina Sakanan eta Nafarroako txoko askotan antolatzen diren aizkora erakustaldi eta txapelketetan bezala, Jesus Mari Arza ari da arduratzen prestaketa lanez. Lakuntzan bizi den iturmendiarrak azaldu digunez, egurrak Urbasaokoak dira. Egur ona ote den galdetuta, ondokoa esan digu. "Egur ona dirudi, baina larunbateko finalean ikusi beharko da. Galtzen duenak ziur txarra dela esango duela, baina (kar kar...) ez dakit, larunbatean ikusiko dugu". Arzak gaineratu duenez, atzo hasi ziren guztia prestatzen eta gaur, ostirala, egur guztiak prest izatea espero dute.



Biharko finalean ariko diren sei aizkolariek. EUSKAL HERRIKO AIZKORA FEDERAZIOA

San Ferminetako Trontza Txapelketako errebantxa

Jaialdia borobiltzeko, San Ferminetako Trontza Txapelketako errebantxa jokatu dute hiru bikotek. Jon Irigoien (Aniz) eta Iraitz Iturralde (Zozai) bikote

txapelduna ariko da batetik; Iñigo Aritza ikastolako Adur Irigoien eta Inhar Olabide Nafarroako txapeldunorde altsasuarrak, bestetik; eta Andra Mariko Peio Altzelai eta Adur Lizarraga etxarriarrak hirugarrenik.

Imanol Arregi, entrenatzaile onena

ARETO FUTBOLA Areto Futboleko Espainiako Federazioak 2018/2019 denboraldiko entrenatzaile onenaren Ramon Cobo Saria eman dio Imanol Arregiri. Bihar Osasuna Magna Xotak Inter Movistarren kontra jokatuko du Madrilen, 2. postua jokoan duela

Areto Futboleko Espainiako Federazioak 2018/2019ko denboraldiko Ramon Cobo Saria eman dio Imanol Arregiri, hain zuzen ere entrenatzaile onenaren saria. Imanol Arregirik azaldu du berak jasoko duela saria, baina saria talde guztiarendako dela, "entrenatzailearen lana taldean islatzen delako", baita talde tekniko guztiarendako ere, "hobe izaten laguntzen diotelako", eta klubarendako "erakuslehoan jartzen gaituelako". "Saria nik jasoko dut, baina konpartitutako saria da. Eskertua nago lana baloratzen dutelako, eta hori oso polita da", gaineratu du Irurtzungo teknikari handiak.



Imanol Arregi, Osasuna Magnako partida bat gidatzen. XOTA

Boxeo eta K-1 gaualdia gaur Altsasun

BOXEOA Gaur, 20:00etatik aurrera, Burunda pilotalekua ringean bilakatuko da. Makina bat borrokaldi izango dira, boxeoan eta K-1 borroka kirolean. Dagoeneko Altsasuko ferietako ostiraletan antolatzen diren boxeo gaualdiak klasiko bilakatzen ari dira

Sakanan boxeoarekiko eta arte martzialekiko zaletasun handia dago. Zaletasun horri erantzunez, Kanku Gym gimnasioak, Altsasuko Udalaren eta Nafarroako Kickboxing eta Boxeo Federazioaren laguntzarekin, K-1 eta Boxeo gaualdia antolatu dute gaur, urriaren 18a, 20:00etatik aurrera Altsasuko Burunda pilotalekuan. Azken urteetan Altsasuko ferietako ostiralean boxeo gaualdia antolatu izan da, eta, gutxika, klasiko bat ari da bilakatzen. Horrela, beste behin Burundak ring itxura hartuko du, eta boxeo eta K-1 borroka eta erakustaldiekin gozatu ederra hartuko dute boxeo zaleek.

K-1 borroka kirola da. 1993 urtean Kazuyoshi Ishiik sortu zuen, Tokion. Kickboxinga eta beste kirol eta arte martzialetatik datozen teknikak -Muay Thai, karate, taekwondo, kickboxing, savate, boxeo eta beste- uztartzen ditu. Boxeo bezalako da, baina hankak erabiltzen dira. Hankak buruan, gorputzean eta hanketan erabil daitezke.

KANKU GIMNASIOAK ANTOLATU DU GAUALDIA, FEDERAZIOAREN ETA UDALAREN LAGUNTZAZ

Boxeolari ugari
Hainbat borrokari igoko dira gaur Altsasuko ringera. Victor Marsalek, Joseba Diazek eta Unai Arroyok erakustaldia egingen dute, eta ondoko konbateak aurreikusitakoak dira: Jorge Pueyo Moha Afitouren kontra, Jon Cardenas Aitor Lopezen kontra, Iñaki Orradre Marouane Aiten kontra, Izan Ibiriku Jordi Querolen kontra eta Iker Azparren Mousinen kontra. Horretaz gain, Nafarroako K-1 Txapelketaren barruan Edgar Teixeira Gorka Pardo izango du aurkari, eta lehenengoz emakumezkoen konbatea izango da: Ana Smith Iratiren kontra ariko da.

Levanteren kontra irabazi

Osasuna Magnak Levante taldea hartu zuen ostiralean Anaitasunan, 2.600 zalderen aurrean. Levante aurreratu zen markagailuan eta gauzak oso estu jarri zizkion talde nafarrari. Hala ere, Imanol Arregiren mutilek ez zuten etsi. Bana berdintzea lortu zuen Bynhok, eta atsedena baino lehen Dani Saldisek talde berdearen bigarren gola lortu zuen.

Bigarren zatian Mancuso eta Rafa Usin lesionatu egin ziren, eta errotazio gutxiago egin behar izan zituzten Imanol Arregiren mutilek. Eric Martelek eta Dani Saldisek sartutako golei esker, 4 eta 1 irabazi zuten berdeek.

Imanol Arregiren esanetan, "sufrikario latza izan da. Jokalariak dena eman dute kantxan; epikoa izan da".

Bihar Movistar Inter arerio

Lehen mailako liderra Barça da (15 puntu), Movistar Inter bigarrenarekin puntutara berdinduta. Osasuna Magna Xota hirugarrena da (12 puntu). Bihar, Movistar Inter izango du arerio talde berdeak, Madrilen, 18:30ean. Bigarren postua dago jokoan.

ARETO FUTBOLA CBASK-Jatormanek San Cernin du aurkari

Autonomien Arteko 2. Mailako Ligako 2. jardunaldia jokatu zen asteburuan. Altsasuko CBASK-Jatorman taldeak Larraona A taldea hartu behar zuen, baina partida urriaren 27ra atzeratu dute. Asteburu honetan 3. jardunaldia jokatuko da. CBASK-Jatorman San Cernin liderraren kontra ariko da, bihar, larunbata, 18:15ean, Iruñean. CBASK-Jatorman 14.a da sailkapenean, partida bat gutxiagorekin.

Beste taldeak

Nafarroako Seniorren 1. Maila Autonomikoko 2. multzoan CBASK-IFUEL taldeak Liceo Monjardin hartu zuen eta 38 eta 73 irabazi zuen Liceok. Igandean, 12:00etan, Cendea de Galar liderraren kontra jokatuko du CBASK-IFUELek Eskirozten. Emakumezkoetan, Nafarroako Kadeteen 2. mailako 5. multzoan asteburuan hasiko da liga. Bihar, larunbatean, Olatzen jokatuko du CBASKek, 19:30ean, Valle de Egues taldearen kontra.

FUTBOL PREFERENTEA

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1	San Jorge 9
4	Lakuntzako Lagun Artea 8
7	Etxarri Aranatz 6
ASTEBURUKO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN	
12:00	Etxarri - Itaroa (<i>San Donato</i>)
16:00	Lagun - Doneztebe (<i>Lakuntza</i>)

Etxarri, IMQ Kopatik kanpo

IMQ Kopako hasierako multzokako ligaxkako 3. jardunaldian, Sanduzelaitik San Jorgeren kontra 5 eta 3 galduta eta IMQ Kopatik kanpo itzuli zen Etxarri.

FUTBOL ERREGIONALA

SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA	
1	Universidad de Navarra 9
12	Altsasu 1
ASTEBURUKO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN	
16:45	Altsasu - Aurrera (<i>Dantzaleku</i>)

Liga bueltan

Asteburuan liga itzuliko da; Altsasuk Leitzako Aurrera hartuko du bihar.

EMAKUMEEN ERREG.

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Zarramonza	3-1
SAILKAPENA	
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA	
1	Mulier 15
12	Altsasu 6
ASTEBURUKO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN	
11:00	Cortes - Altsasu (<i>Cortes</i>)

Altsasuarren bigarren garaipena

Altsasuko neskek garaipen garrantzitsua lortu zuten Zarramonzaren kontra.

ELOMENDI TXAPELKETA.

3. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Apolo - Zaldúa	1-3
SAILKAPENA	
ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA	
1	Barasoain 6
6	Zaldúa 6
HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN	
Zaldúa - Unziti (<i>Lekunberri</i>)	

Zalduak Apolo hartu zuen mendean Denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen Zalduak.



Banakako finalistak. IRATXO

BOTXA Arruabarrena Banakako Botxa txapelduna

Igandean despeditu zen Irurtzongo Iratxo elkarteko botxategian jokatuak Banakako Iratxo Botxa Txapelketa. 12 partaide lehiatu dira txapelketan, bi multzotan. Ostiralean final laurdenak jokatu ziren eta igandean, finalerdiak eta final handia. 3. eta 4. postuak zehazteko partidari, Julen Iragik 12 eta 6 irabazi zion Asensio Galartzari. Pakita Arruabarrenaren eta Josune Astizen arteko finala oso estua izan zen; azkenean, Pakitak 12 eta 10 irabazi zion Josunerri.

Larunbatean, urriaren 19an, Elkarteen Arteko Botxa Jardunaldia jokatu da. Irurtzun, Txantrea, Amaya eta Antsoain taldeek hartuko dute parte, goizeko 10:00etatik aurrera.

ZIKLOKROSA Aimar Tadeo seigarrena Urduñako Ziklokrosean

Larunbatean Urduña Hiria Ziklokros Saria jokatu zen, kadeetan, juniorretan, 23 urtez azpikoetan, eliteetan eta master mailetan. Kadeteen mailan antolakuntzak prestatutako 3 kilometroko zirkuitu gorabeheratsuari 4 itzuli eman behar izan zizkioten txirrindulariek.

Lehia oso estua izan zen eta, azkenean, 48 txirrindularik lortu zuten proba osatzea. Punta Galea taldeko Egoitz Hoyas gailendu zen (31:51), eta aipatzekoa da Sakana Group-Aralar taldeko Aimar Tadeo lakuntzarra seigarrena sailkatu zela (32:14), lasterketako lehen 10 postuetan. Bere taldekide Aritz Oiarbide etxarriarra 24.a (34:38) izan zen.



Bakaikun bildu ziren auto klasikoak zaleak klasikoak gertutik ikusteko aukera izan zuten.

Parte-hartze errekorra Katxarro Egunean

MOTORRA Parte-hartze errekorra izan zen: 197 klasiko zalek euren auto, moto, bizikleta eta kamioiak jarri zituzten ikusgai Bakaikun. Txentxo Aranak katxarro zaharrenaren saria jaso zuen 1935eko bere Austin Sever Ruby autoarekin

“Dena atera zen ongi: eguraldia bikaina zen; parte-hartze errekorra izan zen, 197 pertsonak eman baituzten izena topaketan, eta jendetza hurbildu zen Bakaikura, katxarroak ikustera” adierazi digu Katxarro Eguneko antolatzaile Iosu Aiestarane. Goizetik hasita giro bikaina egon zen Bakaikun, eta urtetik urtera gora doa eguna.

Denetarik

197 klasiko zale animatu ziren euren altxorak Bakaikura eramatera. Denetatik ikusi ahal izan zen: autoak, motorrak, bizikletak, kamioiak... Han zeuden Seat 600 mitikoak, Miniak, Renault 8ak, Citroën 2 cv ezagunak, Renault

Alpineak, Porscheak, Dodgeak... Eta baita garai bateko motor ikusgarriak ere, Jimmy altsuarraren bildumakoak tartean.

Bakaikuko Katxarro Egunean huts egiten ez duen beste bat da Ignacio Arbizu. Iturmendiarrak garai bateko artoak aletzeko makina eraman zuen, larunbatera arte Bakaikun ikusgai jarri ez zuena eta bildutako artean interes handia piztu zuena. “De-

netarik zegoen ikusteko, makina oso politak” aipatu zuen Aiestarane. Jendetza hurbildu zen makinak ikustera eta giro paregabea izan zen.

Sariak

Sariei dagokienez, katxarrorik bitxienaren saria Denis Bainbridgek jaso zuen, 1958ko Biscuter komertzialarengatik. Katxarro zaharrenaren saria, aldiz,

KATXARRO BITXIENAREN SARIA DENIS BAINBRIDGEK JASO ZUEN, 1958KO BISCUTERRARENGATIK

IGNACIO ARBIZU ITURMENDIARRAK ARTOAK ALETZEKO MAKINA ZAHARRA ERAMAN ZUEN



Txentxo Arana 1935eko Austin Sever Ruby autoan.



Seat etxe hainbat eta hainbat auto bildu ziren Bakaikuko plazan.

Txentxo Arana iruindarrak lortu zuen, 1935eko Austin Sever Ruby bere auto beltz ederrarekin. Eta Sopelako Francisco Javier Aburtuk urrutitik ekarritako katxarroaren saria jaso zuen: 133 km egin zituen bere autoarekin Bakaikun egoteko.

Goizean Bakaikuko plaza eta kaleetan egon ziren aparkatuta ibilgailu klasikoak, baina gero Bakaikutik Arruazuraino joan ziren, han buelta hartu eta Arbizun Lizarragabengoarantz sartu ziren, Etxarri Aranatzera iritsi eta Bakaikuraino heltzeko. Hura bukatuta, 95 pertsona bildu ziren Bakarrekotxea elkartean bazkaltzera, festa borobiltzera.

Velosolex motorra Iturmendira

Antolakuntzak Velosolex motor bat zozketatu zuen Katxarro Egunean. Txartelak 2 eurotan jarri zituzten salgai. Iturmendiarrak bat izan zen onuraduna. Eibarren egiten ziren motor hauek eta motorra aurreko gurpilean zuten.



Ibilgailuek buelta bat eman zuten.

Onddo Lasterketak aitortza dakar

ATLETISMOA Bihar XII. Onddo Lasterketa jokatu da. 10:30ean Oinezko Onddo Martxa abiatuko da, 11:00etan Onddo Lasterketa eta 12:00etan 40. Ferietako Eskolarteko Krosa. Antolatzaileei eta hasierako korrikalariei aitortza egiten zaie

Altsasuko Feriak dira asteburuan eta duela 12 urtetik hona feriei lotuta dago Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak hainbat babesleren laguntzarekin antolatzen duen Onddo Lasterketa. Lasterketa herrikoi honek atletismoa sustatu nahi du: zapatilak jantzi eta goiz ederra pasatzea da helburua, lagun artean eta lehiakortasunik gabe, ondoak jaiotzen diren Altsasuko paraje zoragarrietan barna. Finean, parte hartzea sustatu nahi du 6,5 kilometroko proba honek. Antolakuntzak ez du denborarik hartzen, ez sailkapenik egiten.

Oinezkoak 10:30ean eta korrikalariak 11:00etan

Orain arte kategoria txikikoen lasterketak izaten ziren goiztiarrenak. Baina aurten 40 urte beteko ditu Eskolarteko Krosak, eta eguerdian izanen dira neska-mutilen lasterketak. Goiztiarrenak Oinezko Onddo Martxakoak izanen dira; goizeko 10:30ean abiatuko dira Foru Plazatik, eta Onddo Lasterketako eremu bereberan ibiliko dira, oinez, baina ibilbide ezberdina egingo dute, korrikalariak elkarri trabarik ez egiteko.

11:00etan Onddo Lasterketan parte hartuko duten korrikalariak abiatuko dira. Ibilbidea betikoa izango da (6,5 km) Basoitxitik, San Pedrotik eta gertuko eremu zoragarrietatik barna. Bukaeran, partaide guztiak salda beroa izanen dute zain, eta, ohi denez, korrikalarien artean hiru onddo saski zozketatuko dira.

Izena ematea zabalik

Dagoeneko jende askok eman du izena www.dantzalekusakana.com web gunean, baina egunean bertan ere inskripzioa bete ahal izango da Gure Etxean edo Foru Plazan, 10:00etatik aurrera. Dortsala jasotzen duten lehen 150 partaideek Onddo Eguneko kamiseta jasoko dute opari. Nahiz



Onddo lasterketan parte hartzeko deia egin du Dantzaleku Sakanak.

5 EUROKO DOHAINTZA ESKATU DUTE JOSEFINA ARREGI KLINIKAKO LAGUNEN ALDE

eta eguraldi oso ona ez iragarri, Onddo Lasterketan parte hartzeko deia egin dute antolatzaileek. Izan ere, feriak direnez, giro polita sortzen da herrian.

Josefina Arregi Klinikako Lagunen alde 5 euroko dohaintza Dantzaleku Sakanak 5 euroko dohaintza emateko eskaera egin die korrikalari eta oinezkoei, jasotzeko Josefina Arregi Klinikako Lagunei emateko. "Proba bukaeran jasotako dohaintzak batu eta txekoa emango diegu Josefina Arregi Klinikako Lagunen ordezkariari; jasotako guttia ongi etorria izango da" azaldu du Dantzaleku Sakanako Peio Vergarak.

40. Eskolarteko Krosa 12:00etan 40 urte ez dira egunero betetzen, eta horregatik Eskolarteko Krosari errekonozimendua egin nahi

zaio aurten. Horrela, txikienean proba 12:00etan jokatu da. Lasterketa hau bere kategorian Nafarroako zaharrena da eta, kasu honetan ere, proba ez lehiakorra da eta ez da sailkapenik egiten. Bukaeran, neska-mutikoen gozoren bat jasoko dute. Benjaminak, kimuak eta haurrak lehiatuko dira, 15 urtetik gorakoek helduen Onddo Lasterketan parte har dezaketelako.

Duela 40 urte korrika egin zuten altsasuarrei deia

Duela 40 urte egun Zelandi ikastetxea zena Navarro Villoslada ikastetxea zen, eta bertako ikasketaburua zen Carlos Macho, eskolarteko kirola martxan jarri zuena. Altsasuko eskolarteko kirol koordinatzailea Peio Vergara zen, eta eskolarteko atletismo monitoreak Daniel Ziordia. Hiruak antolatu zuten lehenengoz Eskolarteko Krosa. Beraiei, eta 1979an lehendabiziko Eskolarteko Krosean parte hartu zuten, errekonozimendua egin nahi die Dantzaleku Sakanak. Egundak 47 eta 52 urte dituzten altsasuarrei deialdi berezia egin diete 12:00etan plazara gerturatu eta ekitaldian parte hartzeko.

"Eskolarteko Krosak hasieratik izan zuen arrakasta"

ATLETISMOA Aurten 40 urte beteko dira lehenengo Eskolarteko Ferietako Krosa antolatu zenetik. Peio Vergara Garcia izan zen antolatzaileetako bat. Lasterketa honen nondik norakoak ezagutu ditugu berarekin, eta Altsasuko kirolaren azken urteetako historiaren errebasoa egin dugu

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

1979ko urriaren 20an Eskolarteko Ferietako Kroseko lehen edizioa jokatu zen Zumalakarregi plazan. Bere kategorian, behe mailako kategorietan, Nafarroako lasterketa zaharrena da. Hasieratik proba ez lehiakorra izan zen; ez zen sailkapenik egiten eta ez zegoen saririk. Eta gaur egunera arte, horrela mantendu da.

HASTAPENAK

Eskolarteko Ferietako Krosaren antolatzaileetako bat izan zinen. Orduan kirolari lotua zeunden?

Duela 40 urte Altsasuko eskolarteko kirol monitoreen koordinatzailea nintzen. Izan ere, orduan, ikastetxeetan aparteko ordu batzuk zeuden, eta ordu horietan kirola ematen genuen. Monitoreak kirola gustuko genuen pertsonak ginen, eta lan boluntarioa egiten genuen. Nire kasuan, garaian Navarro Villoslada zen eskolan (egun Zelandi eskola) ni kirol monitoreak nintzen, eta ni bertako kirol monitoreak nintzen, baina eskolatik kanpoko aparteko ordu horietan, 17:00etatik aurrera, eta horretaz gain monitoreen koordinatzailea.

Monitore asko al zineten?

Bai, 35 izatera iritsi ginen: Gonzalo Rueda, Pablo Lopez Colina, Daniel Ziordia, Carmelo Navarrete, Davila anaiak, Fernando Morcillo, Ricardo Lopez de Sabando ikastolan, ni Navarro Villosladan... zerrenda luzea. Eta garaiko kirol guztiak biltzen genituen: pilota, areto futbola, eskubaloia, saskibaloia eta atletis-

moa. Oinarria atletismoa zen; neska-mutiko guztiakin atletismoa lantzen zen, eta ondoren beste kirolekin adarkatzen zihozten. Urte batzuk geroago, Altsasuko 5 ikastetxeen arteko Eskolarteko Kirol Txapelketa antolatzen hasi ginen. Ikastetxeak Navarra Villoslada eskola publikoa, Iñigo Aritza ikastola, La Compasion nesken ikastetxea zena, Korazonistak eta Kaputxinoak ziren. Horrela, larunbatetan 5 ikastetxeen arteko kirol txapelketa antolatzen hasi ginen, eta geroago Nafarroa mailan hasi ginen lehiatzen.

Eta nola sortu zen Eskolarteko Ferietako Krosa antolatzearen ideia?

Ikastetxeetan kirola ematen genuenez, bagenekien 120 neska-mutiko inguru zeudela atletismoan ibiltzen zirenak. Ilbeltza edo otsailean Altsasuko Krosa jokatzeko Dantzalekuan, helduek gain adin txikikoak eraritzen ziren. Aurteko urtean, 1978an, lehenengoz San Silvestrea antolatu zuen Lagun Onak elkarrekin Altsasuko kaleetan barna -iaz 40. urteurrena bete zen-, eta pentsatu genuen polita litzatekeela neska-mutilendako propio herrian barna lasterketa bat egitea. Altsasuko Krosa neguan jokatzeko zenez, haurren proba klima egokiago batean prestatu nahi izan zen, eta udazkenean eguraldian nahiko ona izaten denez, ideia gauzatu eta, horrela, 1979ko Altsasuko Ferietan, urriaren 20an, larunbat arratsaldean, lehendabiziko Eskolarteko Ferietako Krosa antolatu genuen Zumalakarregi plazan.

Hortaz San Silvestretik dator kontua...

Bai. Lagun Onak elkarteak antolatutako San Silvestrea baino bi urte lehenago, atletismoa gustuko zuten zenbaitek halako San Silvestre bat antolatu zuten, baina euren kabuz. Eladio eta beste hainbat elkartu ziren institutuan, buelta bat eman eta plazan despeditu zuten korrikaldia. Baina koadrilarteko kontua zen, ez zen oso serioa. Lagun Onak elkartearen atletismo gustuko zuten zenbait bazkide zeuden, Kike Aldasororen aita eta Candi Arnanz tartean, eta Lagun Onak elkarteak hartu zuen San Silvestrea antolatzeko ardura. Orduan ez zen Dantzaleku Sakana kluba existitzen. Gaur egun Dantzaleku antolatzen du.

Nortzuk zeundeten hasieran probaren antolaketan?

Navarro Villoslada ikastetxean Carlos Macho ikasketaburua zen, ni bertako kirol monitorea eta Altsasuko eskolarteko monitorean koordinatzailea nintzen eta Daniel Ziordia atletismo monitorea. Hiruren artean sortu zen Eskolarteko Ferietako Krosa antolatzaren ideia. Lasterketa hau antolatu ondoren Altsasuko ikastetxean Eskolarteko Kirol Txapelketa antolatzen hasi ginen. Jabetu ginen, ikastetxeetan kirola egitea sustatzea bai, baina horretaz gain euren artean partidak jokatzeko ahalbideratu behar genielako ikasleei. Eta hortik aurrera eskolarteko kirol monitorean laguntza izan genuen antolakuntzan. Tatu, Kompasio ikastetxeko Goiko, Kaputxinoetako Iriarte aita... asko ziren. 35 monitore izatera heldu ginen, pentsa! **Hasieratik argi zenuten Eskolarteko Krosa ferietan jokatu zela?** Bai, hasieratik lasterketa feriekin identifikatu zen eta Eskolarteko Ferietako Krosa izena hartu zuen. Dena den, lehendabiziko edizioa irekia izan zen, ez zen eskolarteko txapelketa bat, baizik eta neska-mutil guztiendako irekia. Geroago, Eskolarteko Txapelketarekin bateratu genuen. Altsasuko ferietako larunbatean jokatzeko, arratsalde, Zumalakarregi plazan. Hasieratik arrakasta izan zuen; egun horretan soilik atletismoa zegoen, 120 neska-mutiko inguru aritzen ziren eta sekulako festa izaten zen. Gaztetxo horiek korrikari ikustea oso polita zen, eta Zumalakarregi plazan giro polita sortzen zen.



Peio Vergara, Mareo tabernarekin irabazitako Miniolinpiaden Koparekin.



Lehendabiziko Eskolarteko Kroseko partaide batzuk. UTZITAKOA



Lehendabiziko Eskolarteko Kroseko lasterketako irteerako bat. UTZITAKOA

"SAN SILVESTREN TXIKIENEKIN PROBA BAT EGITEAREN BEHARRAZ OHARTU GINEN"

"ONDOREN ALTSASUKO IKASTETXEEN ESKOLARTEKO KIROL TXAPELKETA HASI ZEN"

Duela 13 urte Dantzaleku Sakana klubetik Onddo Lasterketa antolatzen hasi ginen, eta orduan Eskolarteko Ferietako Krosa Onddo Lasterketarekin bateratu eta bi lasterketak Foruen Plazan antolatzen hasi ginen.

AITORTZA

Larunbatean probaren 40. urterrena da: antolatzailerak eta hasierako lasterketan aritu zirenak izan nahi dituzue gogoan.

Eguerdian jokatu da 40. Eskolarteko Ferietako Krosa, baina hasieran ekitaldi xumea egin nahi dugu. Probaren hasierako antolatzailerak aitortza egin nahi diegu, eta baita lasterketa hartan aritu zirenen neska-mutikoei ere. Orduan, 1979 urtean, 7-12 urte tarteko adina zuten, eta aurten 47 eta 52 urte arteko adina izango dute. Lehendabiziko lasterketa horretan hartutako irudietan Santi Crespo txirrindularia zena, Dani Ziordia semea, Loli Mendoza, Alberto Urkijo eta beste ageri dira. Plazara gerturatzera gonbidatu nahi ditugu, eta baita urte luze hauetan ere antolaketan lagundu duten guztiak. Irantzu Gonzalezen dantza eskolakoek aureskua eskainiko diete plazan dauden guztiak, bereziki antolatzailerak eta garaiko korrikalariak. Talde argazki polita egingo dugu; finean, aitortza xumea egin nahi da.

ALTSASUKO IKASTETXEEN ESKOLARTEKO KIROL TXAPELKETAZ

Altsasuko ikastetxeen Eskolarteko Kirol Txapelketa antolatzen hasi zinetela aipatu duzu. Nolako zen txapelketa?

Altsasuko 5 ikastetxeen artean partidak antolatzen genituen. Larunbatean jokatzeko ziren. Finean, ikasleen artean kirola sustatu nahi genuen, eta parte-hartzea bultzatu. Orduan eskolarteko kirolean genuen ideia zen neska-mutiko guztiak kirol guztietan aritzea, hau da, multikirola, eta 12-13 urtetatik aurrera gaztetxo bakoitzak gustuko zuen kirola hautatzea. Baina ordura arte ikasle guztiak kirol guztietan parte hartzen zuten: atletismoa oinarri hartuta, futbola, areto futbola, saskibaloia, eskubaloia eta pilota. 6 kirol horiek probatzea.

Monitorea boluntarioak zintzen? Bai, ez genuen ezer kobratzen. Kirola gustuko genuelako. Urtero elkartearen afari bat egiten genuen, normalean Daniel Zior-

diak prestatzen zuena, izugarri gustuko baitzuen sukaldatzea. Nola egin nintzen boluntario? Nire kasuan, 16 urte nituela, Goi Mailako Batxillergo despeditzen ari nintzen. Navarra Villoslada ikastetxean nire lehengusu Pedro Vergara zegoen Gurasoen Bartzordean, Carlos Macho ikasketaburua zen, eta deitu ninduten aipatzeko herrian eskolarteko kirola sustatu beharra zegoela. Nik kirola gustuko nuen, besterik gabe, eta monitore izatera animatu nintzen, baita monitore guztien koordinatzailea. 15 urte eman nituen arduradun.

Altsasuko ikasleak kirolean trebatzeaz gain, bestelako lanak ere egiten zenuzuten.

Bai, klaseak bukatu eta gero neska-mutikoei emandako formazioaz gain –asteaz hiru ordu inguru izango ziren–, larunbateko partidak antolatu behar genituen, partidetak arbitroak ginen, antolakuntza guztia... denetatik.

Egun atletismoari, duatloiarri eta mendiari lotuta zaude gehienbat, baina orduan zein kirolean aritzen zinen?

Eskubaloian hasi nintzen. Elizaren atzealdean jokatzeko genuen altsasuarrek, 2 urte eman genituen hor. Ondoren Zumalakarregi jokatzera pasa ginen; denbora nahikotxo eman genuen hor. Eskubaloia mundutik nator; baina pilota, bereziki pala, gustuko nuen, eta beranduago atletismoan hasi nintzen.

HELDUEN MINIOLINPIADAK

Neska mutikoekin lan egiten zenuen, eta helduekin?

Eskolarteko kirol monitoreek beste pausu bat eman genuen aurrera, eta kirola gehiago sustatzeko, helduendako Miniolinpiadak antolatu genituen 1984 urtean. 12 kidez osatutako taldeak osatu behar ziren, eta gero areto futboleko, saskibaloian eta eskubaloian lehiatu behar ziren, eta hilean behin atletismo jardunaldi batean parte hartu. Erantzuna bikaina izan zen. 12 taldek eman zuten izena. Nik Mareo tabernako taldean parte hartu nuen eta 1984-1985 denboraldiko Miniolinpiadak irabazi genituen. Renferek ere taldea bazuen, eta beste hainbatek. Guztiak altsasuarrek. Duela zenbait urte Mareoko nagusiak kopa eman zidan, eta dendan daukat, taldeko argazkiarekin. Bertan daude Pablo Lopez Colina, Claudio



Eskolarteko Krosa Foru plazan izaten da Onddo Lasterketa egiten denetik. ARTXIBOA

Dieguez, Peral medikua zena, Colinaren koinatua, Saez, Jose Angel Iriarte zena, Txus, Crespo, Gonzalez, Estebezen koinatua, Colinaren koadrilako Jose Angel, Naiara Diezen aita, Jaime eta ni. Gu izan ginen lehen txapel-dunak. Bitxikeri moduan, argazkian hiru baloiak daude: areto futbolekoa, saskibaloioa eta eskubaloioa.

ESKOLARTEKO KIROLAREN DESAGERPENA ETA KIROL ESKOLEN SORRERA

Noiz arte iraun zuen eskolarteko kirolak?

Hainbat faktorek izan zuten eragina eskolarteko kirolaren desagerean. Udala sartzen hasi zen, federatuta egotearen gaia sortu zen, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua martxan hasi zen, kirola antolatzen... filosofia aldaketa egon zen. Horrela, eskolarteko kirol koordinakundea desagertu zen eta Altsasuko kirol eskolak sortzen hasi ziren. Monitoreei ere zer edo zer ordaintzen hasi ziren, Udaletik eta Mankomunitatetik. Eta hortik aurrera, eskolarteko monitorea izandako askok kirol eskolatan jarraitu zuten. Gonzalo Rueda saskibaloioan, Davila anaiak futbolekoan... gehien motibatzen gintuzten kiroletan lanean jarraitu genuen.

Altsasuko kirol eskolak aipatu dituzu, baina 1968an sortu zen Sociedad Deportiva Alsasua- Altsasuko Kirol Elkarte (SDA), Altsasun kirola sustatzeko.

Bai, iaz 50 urte bete zituen elkarteak. Elkarteak sortu zenean Altsasuko kirol guztia hartu zuen bere gain, jakina. Baina sortu eta lauzpabost urtera kon-

turatu ginen gehienbat futbola lantzen zuela. Eskubaloioak elkartetik atera ginen lehendabizikoak izan ginen; gogoan dut Igartex izan zela gure taldearen lehen babeslea. Ondoren atletismoa atera zen eta orduan sortu zen Dantzaleku Sakana kluba. Segidan saskibaloioak atera ziren, eta euren taldea eta eskola sortu zuten. Altsasuko Kirol Elkarteak herriko bi txirrindularitza proba beteranekin geratu zen, juniorren Erramu Trofeoa eta afizionatuen Altsasuko Txirrindularitza Proba, aurretik 90 urte bete dituen. Horretaz gain, Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketa antolatzen hasi ziren, baina ez zuten txirrindularitza, ez pilota eskolarik. Proba horiek prestigioa ematen zioten elkarteari, baina ez zituzten txirrindulariak eta pilotariak trebatzen. Pilotan, klubaren arteko txapelketetan lehiatzen ziren, baina pilotariak fitxatuz: Bengoetxea eta Olaizola bera Altsasuko Kirol Elkartearekin lehiatu izan dira.

Horregatik sortu ziren Burunda eta Pilotajauku klubak?

Bai. San Miguel tailerreko Patxi txirrindularitza munduan ibiltzen zen eta berak bakarrik ezin zenez dena bere gain hartu, hark eskatuta Burunda kluba sortu zen, 1988 urtean. Lehendabiziko juntan Luis Ramirez izan zen presidentea eta ni diruzaina izan nintzen. Zortzi urtez egon nintzen diruzain. Burundako txirrindulariak trebatzen genituen, Etxarri Aranatzerraino, bertatik aurrerakoak Lakuntzako Aralar Klubean aritzen zirelako. Eta txirrindulari harrobi polita sor-

Peio Vergara, 47 urte kirola sustatzen

16 urte zituela Altsasuko eskolarteko kirola sustatzeko ardura hartu zuen Peio Vergarak, eta 15 urte eman zituen monitorean koordinatzaile eta eskolarteko kirolaren ardura-dun lanetan. Altsasu taldeko eskubaloio jokalaria, 1963an Etxarri Aranazko emakumezkoen eskubaloio taldea sortu eta entrenatu zuen, 5 urtez. 1988an Burunda Txirrindularitza Taldeko sorreran parte hartu zuen eta taldeko lehen diruzaina izan zen. 1997an Pilotajauku klubeko pala ataleko bokala izan zen. Urte bat geroago, 1998an, Dantzaleku Sakana Klubeko zuzendaritzan sartu zen. Egun juntako bokala da. Urte askotan Altsasuko Atletismo eskolako monitorea izan da. Atletismo lasterketetan aritzeaz aparte, Sakanako Triatlói Taldearekin duatloi lasterketetan jokatzeko hasi zen. Horrela, 2017an, 2018an eta 2019an 60 urtetik gorako Nafarroako Duatloi Txapelketa izan zen, Altsasun, Aranguren eta Valtieran jokatu zuten probetan.

Finean, altsasuarrak 47 urte daramatza bere herrian kirola sustatzen. 2007an Sakanako Mankomunitateak Sakanako Kirolari Onenen Sarietan ohorezko aipamena egin zion, eta 2008an Nafarroako Gobernuak kirol merituari zilarrezko domina eman zion, 25 urtetan baino gehiagotan kirola sustatu izanagatik.

tu genuen; hemen atera diren txirrindulariak Burundan trebatu ziren: Crespotarrak, Floresdarrak, Lorea, Urtasun eta pilotarekin antzeko. Azkenean, Elizalde, Gorris eta beste hainbatek sustatuta Pilotajauku kluba sortu zen, eskola sortu eta pilotariak trebatzeko. Urte gutxitan izugarri aldatu zen Altsasuko kirolaren panorama.

Pilotajaukun ere ibili zinen.

Bai, nik pala nuen gustuko eta juntako kide izan nintzen. Baina egun atletismoan, mendian eta duatloian ibiltzen naiz gehien.



Sakanako Herri Lasterketako antolatzaileek proban aritzera animatu dute. UTZITAKOA

Sakanako Herri Lasterketa urriaren 27ra atzeratu dute

ATLETISMOA Urriaren 27an jokatu da, goizeko 11:00etatik aurrera, Etxarri Aranatzan

Aurretik Etxarri Aranatzek hartu du Sakanako Mankomunitateak antolatutako XIX. Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusia. Hasiera batean urriaren 26an jokatzekoa zen, larunbat arratsaldean, baina hurrengo egunera aldatu dute. Egun horretan Altsasuko gazteen aldeko kontzentrazioa dagoelako deituta, Iruñean. Horrela, urriaren 27an, igandearekin jokatu da XIX. Sakanako Herri Lasterketa, Etxarri Aranatzan. Goizeko 11:00etan kategoria txikiko lasterketak jokatu dira, eta 12:00etan proba nagusia (7,7 km).

Izena ematea zabalik

Izena ematea zabalik dago, www.herrikrosa.eus web gunean. Urriaren 25era arte izena ematen dutenek 8 euro ordaindu behar dituzte. Kategoria txikikoek, gazteek eta kadeteek ez dute ordaindu behar izango, baina inskripzioa bete behar dute.

Sakanako Herri Lasterketa jokatzeko gain, 11:45ean, Errefuxiatuen Aldeko Oinezko Martxa abiatuko da; lasterketarako prestatu den zirkuituari buelta bat emango zaio, oinez. Parte hartzen dutenen artean bazkari edo azeria zozketatuko da.



Izaskun Beunza hirugarrena

ATLETISMOA Asteburuan Nafarroako Atletismo Txapelketa jokatu ziren Lizarran, 5 kilometroko distantzian. Gizonezkoetan Javier Nagore gailendu zen (15:48), eta emakumezkoetan, Ana Llorensek irabazi zuen (18:25); Sara Madaniri 46 segundo atera zizkion iruindarrak (19:11) eta Izaskun Beunza olaztiarrari 50 segundo.



Argazkilari bat 2018ko ferietan. ARTXIBOA

Altsasuko feriak argazki kameraren objektibotik

Altsasuko ferietan, igandean, 34. Argazki Rallya egingen da Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta

ALTSASU

Altsasuko ferietako Argazki Rallyaren antolakuntza hartu zuen Altsasuko Mendigoizaleak taldeak 1985ean. Altsasuko Udalak 1970ko hamarkadan argazki lehiaketa bat jarri zuen martxan. Lehiaketak hamar urte inguru iraun zuen, baina antolatzeak "lan handia" sortzen zuenez, bertan behera utzi zuen. Lehiaketan "nahiko jendek parte hartzen zuen", Andres Bengoetxeak Altsasuko Mendigoizaleak taldeko kideak gogoratu bezala. Orduan, parte hartzaileei antolakuntza eskaini zien udalak. Baina hauek ezetz esan zuten, duela 34 urte taldeko bi kideek erronka hartu zuten arte. Igandean, berriz ere, argazkilariak izanen dira Altsasuko kaleetan, ferietan murgildutan, irudi onenaren bila. Gainera, Rallya Herriz Herri lehiaketarako puntuagarria da.

Izenak adierazten duen bezala, Altsasuko ferietako Argazki Rallyaren gai nagusia feriak dira. Gainera, beste lau gai jartzen dira eta argazkilariak gai horiek irudien bidez islatu behar dituzte. Gaiak egunean bertan aukeratu dituzte antolakuntzak. Argazki rally bat ibilbide jakin batean argazkiak ateratzeko egiten den lehiaketa da, nahiz eta Altsasukoan "feriak guztiak hartzen du, ez dago ibilbiderik". Hortaz, Argazkilariak lehiaketa bat da.

Argazki Rallyaren parte hartzea 08:30ean hasten da eta une horretan kameraren txartela hutsik aurkeztu behar dute.

Rallyan hasten direnean bere buruaren argazki bat egin behar dute. Rallya 14:00etan amaitzen da eta ordurako parte hartzaileek 35 argazki aurkeztu behar dituzte. Argazki horietan argazkiaren metadatuak gelditzen dira, beraz, argazkilariak ezin dituzte manipulatu. 35 argazki baino gehiago eginez gero, ezabatu daitezke. Antolakuntzak argazki horiek deskargatzen ditu, eta ondoren argazkilariak urriaren 24ra arte dute lehiaketara aurkeztuko dituzten bost argazkiak aukeratzeko.

Ganaduaren hamaika aurpegi

"Argazki gehienak ganaduarenak izaten dira, ohi denez". Hala ere, argazkilariak "oso konplexua" dela esan du Mendigoizaleak taldeko kideak. Beraz, nahiz eta ganaduaren argazkiak egon guztiak desberdinak dira. "Argiaren eta enkoardaketaren arabera elementu bat argazkietan oso desberdina izan daiteke".

Argazki Rallya lehiaketa bat baino gehiago ere bada. Horregatik, aurten hamaiketako tertulia antolatu dute parte hartzen duten argazkilariendako. Zubezia elkartean izanen da, 11:00etatik 12:00etara, eta helburua "argazkilarien topaketa" bat egitea da. Beraz, hamaiketako hartzen duten bitartean argazkilariak hitz egingen dute, eta "esperientziak eta aholkuak" elkarbanatu dituzte.

Herriz Herri "argazki lehiaketa" barruan sartu da Argazki Rallya, beraz, puntuagarria da.

Musikaren ikono baten erretratu sakandarrak

Enrique Villareal 'El Drogas' musikariaren lan berrian parte hartu du Idoia Zufiaurre 'Chuffi' urdiaindarrak. Abeslariak bost disko kaleratu ditu, eta bakoitzak ilustratzaile baten irudia du, tartean artista sakandarrarenak

URDIAIN

Solo quiero brujas en esta noche sin compañía lan berria kaleratu zuen urriaren 4an Enrique Villareal *El Drogas*-ek. Lana 42 abesti biltzen dituzten bost diskoek osatzen dute. Eta disko bakoitzaren azalaren irudia ilustratzaile batek egin du. Haietako batek marka sakandarra du: Idoia Zufiaurre *Chuffi*-ren lanak ilustratzen du *Timbre Acustico* diskoa. Abeslariaren hiru erretratu egin ditu artista urdiaindarrak diskoa ilustratzeko.

Artistaren eta musikariaren arteko harremana "aspaldi" hasi zen. 2015. urtearen amaieran *El Drogas*-ek *Zapatilas para volar* haiku edo poema liburua publikatu zuen, eta liburuaren azala eta ilustrazioak Chuffi-k egin zituen. Lan berriarekin hasi zenean, "niregan pentsatu zutela esan zidan". Hortaz, urdiaindarrak baietz esan zion, nahiz eta hasieran "non sartu naizen" pentsatu zuen.

Erretratuak

Diskoa ilustratzeko eskatu ziotenean, udaberriaren, *Chuffi* erretratuak egiten ari zen eta ilustrazioak egiteko "askatasun osoa" zuenez, *El Drogas*-en erretratuak marraztu zituen proiektu berri honetarako: "bi erretratu egin nituen eta hirugarrena abeslaria sorbaldez ateratzen da". Abeslariarekin "berarekin lan egiteko konfiantza" duenez, eroso aritu dela esan du artistak. "Akustikoa da nirea eta diskoaren musika bezala, ilustrazioak ere oso argiak dira".

Inspiratzeko Zufiaurreri diskoaren hainbat abesti eman zituen, eta "etengabe" entzuten ari zela sortu zituen erretratuak. Artearen munduan dena "atzorako" denez, denbora tarte handia ez zuen izan marrazkiak sortzeko, beraz, "ez nion buelta asko eman, erokerietan sar-



Enrique Villareal 'El Drogas' 'Solo quiero brujas...' lan berria eskuan duela. MMN

IDOIA ZUFUARREK 'EL DROGAS'-EN LAN BERRIAREN DISKO BATEN ILUSTRAZIOAK EGIN DITU

tu gabe" marraztu zituen ilustrazioak.

Chuffik *Solo quiero brujas en esta noche sin compañía* lanerako egin dituen erretratuak oso errealistak dira, izan ere, artistak esan duenez Villareal "oso argi antzematen" da. Izan ere, artistarendako "*El Drogas* ikono bat da". Hortaz, artista bakoitzak lan egiteko askatasuna zuenez, "ikonokoak diren elementuak" goraiatu ditu urdiaindarrak: "bizarra, zapiak... Nik beti berdin ikusi dut". Gainera, *Chuffi*-ren estiloa ere marrazkien koloreetan ikusten da: "*Timbre Acustico* zen niri ilustratzea egokitu zitzaidan diskoa, eta horregatik marrazkiak oso argiak eta koloretsuak dira".

Bost diskok osatzen dute *El Drogas*en *Solo quiero brujas en esta noche sin compañía* lan berria: *Timbre Acustico*, *Timbre*

Oxidado, *Timbre Canalla y Bullanga*, *Timbre Fundido* eta *Timbre Equivocado*. Bost disko, bost gai, bost estilo eta, ondorioz, bost ilustratzaile. *El Drogas*en lan guztietan bezala, lan berrian ere aldarrikapenerako, amorrarendako, dekadentziarako, baita "abesti motelendako" lekua ere badago. Diskoekin batera, liburu bat dator txantrearraren lan berrian.

Bost disko, bost ilustratzaile

Artista sakandarra ez ezik, Altsasuko auziagatik zigortutako gazte altsasuarren alde Altsasuko frontoiko horman murala egin zuen Elias Taño artista kanariarrak ere parte hartu du diskoetako baten ilustrazioan.

Villareal "oso gertuko" pertsona dela esan du Zufiaurrek: "liburua egin genuenean berarekin egoteko aukera izan nuen eta oso noble da". Oraingoan, aldiz, disko urriaren 4an kaleratu zutenetik "ez denez gelditu", ez du berarekin hitz egiteko aukera izan. Hala ere, ilustrazioak gustatu zaizkiola iritsi zaio. Disko berriaren ilustrazioak eta diseinua Koldo Villarealek, abeslariaren anaiak, egin du.



Maria Moreta, eskuinean, Espainiako Aeropress lehiaketan. UTZITAKOA

Kafe hoberenaren sekretuak azaleratzeko lehiaketa

Maria Moreta arbizuarrak Aeropress Espainiako lehiaketan parte hartu zuen asteburuan

ARBIZU

Esperientzia "izugarria" izan dela adierazi du Mari Moreta Mayorgak Nafarroako Aeropress lehiaketaren irabazleak, eta, ondorioz, Nafarroako ordezkaria Espainiako lehiaketan. Urriaren 12an, larunbatean, jokatu zen Spain Aeropress Championship lehiaketa Madrilen. Moreta hamar hoberenen artean gelditu ez den arren, "oso pozik" dago arbizuarra. Hortaz, datorren urtean Nafarroako Aeropress lehiaketara aurkeztuko dela, eta "pare bat" lehiaketetara aurkeztuko dela aurreratu du.

Aeropress-a xiringa handi baten itxura duen kafetera eramangarria da. Moretak azaldu bezala, "kafetera honekin kafe egin berria edozein tokitan edan daiteke". Aeropress-aren inguruan, gainera, zaletasun eta mundu handi bat dago. Hortaz, kafea egiteko lehiaketa ere antolatzen dituzte. Moreta Nafarroako Aeropress lehiaketara aurkeztu zen, ikastaro batean irakasleak kafetera eramangarriari buruz hitz egin, eta erabiltzen irakatsi ondoren. Lehengo aldiz lehiaketara aurkeztu zen aurtan, irabazi zuen eta Espainiako lehiaketarako txartela lortu zuen.

Zortzi minututan aeropress-arekin kaferik hoberena prestatu behar zuten parte hartzaileek Madrileko lehiaketan. Aurretik, etxean errezetak probatu behar zituztela azaldu du Moretak, "zientzialariak bezala" esperimentuak egiten ibili da

kafe hoberenarekin eman arte. Uraren tenperatura eta kantitatea, kafe kantitatea eta ehotzeko modua kontuan izan behar diren aldagaiak dira.

Estatuko 47 finalistek parte hartu zuten Espainiako Aeropress lehiaketan urriaren 12an, larunbatean, jokatu zen lehiaketan eta hamalau taldetan banatu zituzten. Talde bakoitzean hiru edo lau parte hartzaile zeuden, eta talde horietako kafegile hoberena hurrengo txandara pasatzen zen. Moretak ezin izan zuen finalurrerkoetara iritsi, baina hiru txandatan aritu zen kafea egiten. "Ez dakit zehazki nola sailkatu nintzen lehenengo errondak hamar hoberenak aukeratzeko kanporaketak zirelako".

Kafearen munduan murgilduta

Finalera iristea zaila zela bazekien Moretak, beraz, lehiaketan parte hartzearekin bakarrik pozik zegoen arbizuarra: "bikain egon da". Lehiaketara joan aurretik "bi txanda" pasatzea espero zuen. Gainera, esperientzia bizi nahi zuen eta kafearen munduaz gehiago ikasi. Lehiaketa ez ezik, kafearen inguruko jardunaldiak egin zituzten ere. Aeropress-ak sortutako zaletasunarekin jarraituko du Moretak, eta datorren urtean Nafarroako Aeropress lehiaketan eta "aurkitu" dituen beste bi lehiaketetan parte hartuko duela aurreratu du. Bitartean, kafearen munduaz gehiago murgiltzen jarraituko du: "oraindik ikasten ari naiz".

Hitzekin egindako gastronomia menua

Joxe Aldasoro etxarriarrak eta Antonio Casado da Roche errenteriarrek irabazi dute II. Letrak Ahora literatur lehiaketa. Arbizuko Udalak antolatzen du lehiaketa, eta igandean, Txistor egunean, banatu zituzten sariak

ARBIZU

Txistor Egunaren hamargarren edizioa ospatzeko, iaz, Letrak Ahora literatur lehiaketa antolatu zuen Arbizuko Udalak. Eta, aurtan, bigarren edizioa antolatu dute. Bi sail zeuden: narrazio laburra eta poesia eta guztira sei lan aurkeztu dira. Txistor Eguna ospatu zuten igandean Arbizun, eta sariak banatzeko baliatu zuten. Joxe Aldasorok narrazio laburrean eta Antonio Casado da Roche poesian izan ziren irabazleak. Epaimahaia Castillo Suarez eta Asier Serrano idazleek osatu dute eta iaz epaimahai kide izandako eta irailean zendu zen Jon Barberena idazlea gogoan izan zuten.

Sei lan aurkeztu dira gastronomia ardatz duen literatura lehiaketaren bigarren ediziora. Narrazio laburrean bost lan aurkeztu dira eta poesian bat. Joxe Aldasoro etxarriaren Erlojuari so lanak irabazi du narrazio laburra eta poesia eta guztira sei lan aurkeztu dira. Txistor Eguna ospatu zuten igandean Arbizun, eta sariak banatzeko baliatu zuten. Joxe Aldasorok narrazio laburrean eta Antonio Casado da Roche poesian izan ziren irabazleak. Epaimahaia Castillo Suarez eta Asier Serrano idazleek osatu dute eta iaz epaimahai kide izandako eta irailean zendu zen Jon Barberena idazlea gogoan izan zuten.

Poesia atala Black and White pudding lanak irabazi du. Antonio Casado da Roche errenteriarra da egilea eta Irlandara egindako bidai bat ekartzen du gogora idazleak. Corken gosaldutuenekoa eta jakiek iradokitzen duten guztiaren eszena islatu du poemaren bidez.

Bi egileek 100 euroko saria jaso dute eta narrazio laburra eta poesia biltzen duen argitalpen ilustratu bat ere. Ilustratzailea Maite Gurrutxaga izan da, eta lehenengo edizioaren liburuxkarekin egin bezala, ale batzuk egileei emango diete, eta beste batzuk Sakanako liburutegietan utziko dituzte.



BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARATZU

"Cuentame una de Rock Navarro"



Urriaren 18an eta 19an Gaiarre Antzokian ikusi ahal izanen dugun ikus-entzunezkoa, erreportaje eta omenaldiaren arteko lana dugu.

"Cuentame una de rock navarro" lanak 60. hamarkadatik aurrera Nafarroako rock taldeen gorabeherak azaltzen ditu. Garai hartatik hona estiloak eta teknologia aldatu dira, baina errebeldia, ilusioa, lotsagabekeria, eta mundu honetan bizitzeko era ez da horrenbeste aldatu, rockaren

izpiritua, izpiritu bera da. Hauxe izanen da agian Enrique de Cía (William), Rafael Escalada, Mari José Ziordia, Idoia Altadill, Luis Gortari eta Arturo Armendariz bezalako irratietatik hamarkada desberdinen inguruan osatuko duten erretratoaren hari nagusia.

Erreportajearen emisioan zuzeneko musika tartekatuko da; ezin zen beste modu batez izan. Musikaz La Banda de Desagüe arduratuko da, beste hainbat musikariz lagunduta:

Beatriz eta Gorka (Lemon y Tal), Ruben (Tijuana in Blue), Alfredo Piedrafita (Barricada), Gussy (El Color de la Duda), Iñaki (Khaus), Maialen (Chica Sobresalto), Motxila 21 eta Serafin Zubiri.

"Cuentame una de Rock Navarro" zabalagoa den ziklo baten barruan kokatzen da. 18an eta 19an Gaiarre antzokian izanen den ikuskizunaz gain, Nafarroako musikaren historiaren inguruko hitzaldia izanen da eta 26an, larunbatearekin, Indara aretoan, aitzakia honi esker berriz elkartzeko diren Nafarroako hainbat talde arituko dira. Sakanatik talde bat arituko da, Ambulance. Berririo elkartuko eta oholta gainean arituko da lehengo eta oraingo lagunekin batera.

Urriak 15: Civivox Kondestable. Hitzaldia. 19:00etan.

Urriak 18 eta 19: Gaiarre Antzokia. "Cuentame una de Rock" dokumentalaren proiektzioa. 20:30ean.

Urriak 26: Indara aretoa. Nafar taldeen kontzertua. 19:30ean.



Angel Perez Miguel Altsasuko idazleak 'Morir para contarla' liburua aurkeztuko du gaur. UTZITAKOIA

"Literatura ez da bizitza erreala, baina zaila da fikziotik desberdintzea"

ANGEL PEREZ MIGUEL IDAZLEA

Angel Perez Miguelek 'Morir para contarla' liburua aurkeztuko du gaur, 19:00etan, lortian. Altsasuarraren lehenengo eleberria da; nobela "oso literarioa"

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Angel Perez Miguel Altsasuko idazlearen lehenengo eleberria da *Morir para contarla*. Aspaldi buruan zuen istorioa, duela bi urte paperera eraman zuena. Gaur, ostirala, 19:00etan, lortia kultur gunean aurkeztuko du. Aurkezpena Itziar Perez Argomaniz kazetariak egingo du.

Zure lehenengo nobela da?

Nire lehenengo nobela da. Lehen ipuinak, kontaketak edo istorio laburrak idazten nituen. Duela hamar urte Haize Berriak Bandaren eguberri kontzerturako ipuin bat idatzi nuen eta Iortia kultur gunean egindako bi kontzertuetan ahotsa jarri nuen ere. Baina nobela bat idaztea beste gauza bat da. Aurretik zerbait argitaratu izan dut, gauza txikiak. Gazte nintzenez, Salamancako Unibertsitatean ikasle nintzenez, duela urte asko, beraz,

aldizkari literario batzuetan eta hango egunkarietan poemaren eta ipuinen bat idatzi nituen. 1993an Nafarroa Oinez-a Altsasun egin zenean ere Rafael Karasatorre etxarriarekin batera Burunda topaleku liburua idatzi genuen. Iñigo Aritzak argitaratu zuen.

Zer kontaktzen du?

Matematika irakasle den Pablo Vizanen bizitza kontaktzen du: gertaera batzuk, bere bizitzaren gorabeherak eta maitasun harremanak. Baina noizbait maitemindu zituen bost emakumeen ikuspuntutik kontaktzen da istorioa. Bostetako bakoitzak bera-

"BOST EMAKUMEK PABLO VIZANEKIN, PROTAGONISTAREKIN, IZANDAKO ERLAZIOAZ HITZ EGITEN DUTE"

rekin izandako erlazioa kontaktzen du: nola ezagutu ziren, zergatik utzi zuten, haiendako izan duen garrantzia... Ezustean iristen den posta elektronikoko batek eta hasieran jasotzen duten gonbidapen arraro batek suspensea mantentzen du amaiera harrigarria arte. Eleberrian adiskidetasuna, literatura eta misterioa daude, kontraesanez eta ezusteez betetako bizitzarako kantu bat da.

Zertan inspiratu zara?

Literatura ez da bizitza erreala, baina askotan fikzioaren eta errealtatearen arteko desberdintasuna argitzea oso zaila da. Beraz, abiapuntua errealtatea da. Horrek ez du esan nahi eleberri hau errealista denik. Ez du errealtatea deskribatzen, interpretatzen edo birlantzen du. **Autobiografikoa da?**

Esan bezala, literatura, eta nobela bereziki, beti da autobio-

grafikoa. Flaubert idazle frantziar ospetsuak, *"Madame Bovary c'est moi"* ("Madame Bovary ni naiz") erantzun zuen. Nik kontrakoa erantzuten dut: Ni ez naiz Pablo Vizan. Nire bizitzaren pasadizo batzuk utzi dizkiot, nik ezagututako giroetan mugitu da, lagun bat komunean dugu eta abar. Baina, zorionez, ni ez naiz Pablo Vizan.

Nortzuk dira pertsonaiak?

Protagonista Pablo Vizan da. Ines, Ana, Irene, Laura eta Angela dira narratzaileak. Manuel, Pabloren lagun mina ere oso garrantzitsua da. Nik uste benetako protagonista belaunaldi bat dela; Franco hilzorian zegoen bitartean heldutasunera iritsi zen hori.

Zenbat denboran egon zara nobela idazten?

Urte asko daramatzat nola idatzi pentsatzen, baina idazten

urte bete besterik ez. 2017an amaitu nuen. Argitaratu nahi nuela hasieratik oso argi nuen. Ondoren, nire sorterriaren mintzamenari buruzko ikerketa bat egin nuen eta argitaratzeko prestatuta dago. Orain, bigarren eleberrian lanean nabil, argumentua pentsatuta daukat.

Nola deskribatuko zenuke zure estiloa?

Nire estiloa deskribatzea ezinezkoa egiten zait. Saiatuko naiz: *Morir para contarla* oso eleberri literarioa da, baina aldi berean edozein irakurlerendako ulerterraza; serioa, baina umoretsua. Literaturan forma da garrantzitsuena, beraz, eraginkortasuna lortu nahi baduzu, derrigorrez forma zaindu behar duzu. Horretan ahalegintzen naiz nire eleberrietan.

Guaixerekin ZIENTZIA tabernetan

19:00etan · Bargazpi taberna · LIZARRAGA

Urriak 18
ostirala

Joseba Aldasoro
(agrobiologia)

Nora Unzeta
(kimika analitiko)

Ines Castiella
(energia berriztagarriak)

19:00etan · Clinker taberna · OLATZAGUTIA

Urriak 24
osteguna

Saloa Larraza
(hizkuntza-jabokuntza)

Mikel Lopez
(fisioterapia)

Oihane Mayo
(inusi medikoen arteko eta adimen artifiziala)

GUAIXE fundazioa | Guaixe 25 baitan gurekin | Mank | meca



David Comin inauterietan zezensuzkoa eramaten. FERNANDO MORENO

"Berriz jaioko banintz, errepikatuko nuke"

Irailaren 17an, Altsasuko festetako azken egunean, eraman zuen azkenengo aldiz zezensuzkoa David Cominek. Altsasuarrak 25 urtez eraman du zezensuzkoa herriko festetan, ferietan eta inauterietan. Erreleboa hartuko du bere lehengusuak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Noiz hasi zinen zezensuzkoa eramaten?

1995. urtean hasi nintzen. 17 urte nituen. Nire aita, Luis Comin, Altsasuko udaltzain bezala hasi zenetik, 1980ko hamarkadaren hasieran, hasi nintzen berarekin ateratzen. Gero erreleboa hartu nion.

2 Nondik datorkizu zaletasuna?

Nik uste odolean daramadala, genetikoada. Gurasoak Aragoikoak dira eta bertan suaren eta suzirien inguruan zaletasun handia dute. Betidanik gustatu izan zait.

3 Nolakoa izan zen eraman zenuen lehenengo aldia?

Oso-oso nekatuta bukatu nuen. Pasada handia izan zen. Baina

nekea alde batera utzita, oso ongi pasatu nuen. Distantziak kalkulatzeko ikastea kostatzen da, baina jendearen erantzuna ikusteak merezi izan zuen. 25 urtez jarraitu dut, beraz, asko disfrutatu nuen.

4 Urte hauetan zezensuzkoa aldatu da?

Bai. Udaletxean oraindik gordetzen da zezensuzko zaharra,

baina oso nekeza zen. 30 kilo baino gehiago ziren. Orduan, beste bat askoz arinagoa egitea erabaki genuen. Oraingoak kargarekin gehienez 20 kilo pisatzen ditu. Herriko zurgin batek egin zuen eta desmuntagarria da.

5 Zer behar da zezensuzkoa eramateko? Titulurik behar da?

Gorputza buzo batekin estali behar da eta erredurak ekiditeko urarekin busti. Fisikoki pixka bat indartsu egotea gomendagarria da. Baina, egia esan, nik ez dut kirol asko egiten. Piroteknietan istripu asko egon ziren eta lege berri bat onartu zuten. Legeak dio 10 kilo bolbora baino gehiago eramateko titulua behar dela. Hemengoaren karga gehienez 2 kiloko da, beraz, guk ez dugu zertan titulu hori izan. Hala ere, aldatu da guk orain ezin baitugu karga hartzera joan; pirotekniko langileek ekarri behar dute karga ibilgailu berezi batean.

6 25 urtez herriko festan zezensuzkoa eraman duzu. Sakrifizioa izan da?

Modu honetan pixka bat zaindu naiz ere. Ez nion garrantzia handirik ematen. Parranda gauz egiten nuen, eta arratsaldean kontrolatzen nintzen. Oso ongi pasatzen nuen eramaten. Gainera, jendea disfrutatzen ikusteak merezi zuen.

7 Altsasun bakarrik eraman duzu?

Festetan, ferietan eta, azken urteetan, inauterietan, igandean eta asteartean. Urdiainen ere eraman dut eta duela gutxi Zegamako auzo bateko festetara joateko ere esan ziguten. Nahiz eta nik ez eraman, datorren urtean itzuliko gara.

8 Ibilbide jakin bat egiten zenuen?

Hasi nintzenez gutxi gorabehera libre zen. Plazan egotea gustatzen zitzaidan, baina Zubeztia plazara joan nintekeen ere.

9 Zergatik uzten duzu?

Geroz eta gehiago kostatzen zait. Urteek ez dute barkatzen. Erreleboa dagoenez uztea erabaki dut. Nire lehengusua nirekin aritu da bi urtez, eta hemendik aurrera berak eramango du, lagun baten laguntzarekin. Igandean, ferietan, ikusiko dute nortzuk diren zezensuzko eramaille berriak. Garrantzitsua da bi pertsona egotea erreferentzia puntu bat izateko: nondik eta nola zoazen jakiteko, indarra erregulatzen joateko... Urteekin ikasten da.

10 Zezensuzkoa eramateko aholkuak?

Batik bat haurrekin arreta handia izatea. Izan ere, hanke-tatik sartzen dira, eta zer egiten duzu? Gero, hemen zortea izan dugu ez ditugulako arazorik izan, baina izan ohi dira zezensuzkoa bultzatzen dituzten inozoak. Hemen pare bat aldiz ukitu dute, baina zorte handia izan dugu.

11 Nolakoa izan zen zure azken zezensuzkoa?

Oso bizia. Oroitzapen asko ditut. Ferietan izango da lehenengo aldia ez dudala eramango, eta faltan botako dut. Baina ez dut uste noizbait berriz hartuko dudarik, ez dut iritiz erraz aldatzen. Baina berriz jaioko banintz, esperientzia errepikatuko nuke, dudarik gabe. Zezensuzkoa ez dut eramango, baina gertu ibiliko naiz. Haiekin egon behar dut".

BAZKIDE ZOZKETA

LASTAILEKO SARIAK:

1. SARIA:
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
DONOSTIAKO AQUARIUMA: SARRERA BANA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN







